



Euromena



**Kamara digitaletik argazkira.
Argazkitik CDra.**

Argazki konponketa.Oroigarriak argazkiekin.Argazkitik argazkira.

Digitalean ere profesionalak.FOTOETXE.Fujifilm.Beasainen.



LERTXUNDI c.b.

**LAN BERTIKALAK
ANDAMIORIK GABE**

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea ATAUN



Kanaloiak

Pintura

Bajanteak

Teilatuak

Fatxadak

Tximiniak ...

Behi Esnea




Ohizko sukaldeko benetako
zaporea lortzeko proposena

Zaporeduna

**DASTATU BENETAKO
BEHI ESNEAREN
ZAPOREA**

ETXETIK GERTU DUZU SALGAI



Behi Esnea produktoreak



Agerre baserria
Tel. 943-72 40 36
Urretxu, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00005/SS NF.A



Iztueta Elkarte
943-88 41 36 /943-88 48 60
Lazkaoendi, Lazkao, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00003/SS NF.A



Agote Etxeberri baserria
Au/Garin 17, Beasain
Gipuzkoa

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN NABARMEN: GOIERRITARRAren zozketa.

4-6: BERRIAK LABUR

9: TXANDAKA: Xabier Mendiguren.

10: AHOLKUA: EKA

11: KATE MOTZEAN: Xabin Azurmendi

12: Euroa hemen da.

13: Kontseiluaren diru bilketa.

14: Anton Abbadia saria, Dionisio Amundarainentzat.

17-29: URTEKARIA

30-31: Igartubeiti baserri-museoa.

34-47: KRONIKAK:

48-49: KULTURA: Jabier Arrieta, eskulturgile eta tailagilea.

50-51: AGENDA

52-53: DEBALDEKO IRAGARKIAK

54: FOTO ZAHARRA: Segurarrak.



GOIERRITARRAren aldeko zozketa: Zenbaki saritua: 8.457

Abenduaren 11n, goizeko 9,30etan, Ordiziako Notarioaren aurrean egindako zozketaren arabera, GOIERRITARRA aldizkariaren aldeko zozketako zenbaki saritua, 8.457 da.

Beasaingo Udal Euskaltegian saldu da errifa saritua.

Zenbaki hori daukanak, 300.000 pezeta izango ditu nahi duenean, nahi duenarekin, nahi duen bidaia egiteko. Beasaingo Urola Bidaia- en eskutik egingo da bidaia. Hori bai, 2002ko irailaren 30a baino lehen egin beharko da bidaia eta dirua bidaian gastatu beharko da.

Irabazlea beraz, jar bedi lehenbailehen harremanetan GOIERRITARRA aldizkariarekin, saria eman diezaiogun. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 943889612.

Beraz, zorionak irabazleari eta eskerrik asko beste guztiei, errifak erosiz, GOIERRITARRA aldizkaria diruz laguntzeagatik.

Urte Berri on!

Lerro hauen bidez, GOIERRITARRA aldizkaria egiten dugun guztiok, Urte Berri ona opa nahi dizuegu urte osoan zehar gure irakurle izan zaretenoi. Datorren urtean ere gure artean izango zaretelakoan, eskerrik asko eta Gabon zoriontsuak guztioi!


Harpideentzat oharra

Ordenadorearekin izan dugun arazo baten ondorioz, aurtun bidaltako harpidetza berriak eta aldaketak berriz ere bidaltzea eskatzen dizuegu. Barkatu eragozpenak.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Xabier Mendiguren, Goimen, Kutxa.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria



ETAk bi ertzain hil zituen Beasainen, azaroaren 23an

Zaldizurretako bidegurutzean trafikoa zuzentzen ari ziren

Azaroaren 23a zen, ostirala, iluntzeko 7,10 inguru. Ohi bezala, trafiko handiko ordua eta tokia. Ana Arostegi mungiarra eta Javier Mijangos gasteiztarra ertzainak, trafikoa zuzentzen ari ziren. Bi ezezagun hurbildu eta tiro egin zieten ertzainei. Ana Arostegi bertan hil zen, Javier Mijangos, Tolosako Asuntzio klinikara eraman zuten baina berehala hil zen. ETak hartu du beregain ertzainon hilketa.

Atentatuaren egileek ustez ihes egiteko autoa, Loinazko San Martin basilizaren inguruan aurkitu zuten azaroaren 25ean. Itxura denez, autoa lehertzeko prest zegoen eta ingurua itxi eta meza elizkizunik ez zen izan egun hartan San Martinen. Autoa aztertu ondoren, atentatuaren egileak, Ainhoa Garzia eta Imanol Miner izan zirela diote Ertzaintzako ikerketa iturriek.

Atentatua gertatu eta berehala hasi ziren gaitzespen



Goiko argazkian, Udaltzatzen aurretik bilkura ixila egin zen Loinazko San Martin plazan.

adierazpenak. Komunikabide ugari hurbildu zen Beasaina.

Ez ohiko batzarra, bilkura eta manifestazioa

Hurrengo eguna luzea izan zen. Goizeko 10etan, Juan Jose Ibarretxe, Roman Sudupek eta Jon Jauregik Beasaingo udaletxean, agerraldi bateratua egin zuten. 12:00etan, bilkura ixila egin zen Loinazko San Martin plazan. 12:30ean, ez ohiko batzarra

egin zen. Batasunak izan ezik, gainerako alderdi politiko guztiek atentatua salatu zuten. 19:30ean, manifestazioa izan zen, 'Bakea eta Askatasuna. ETA ez' lelopean. Antolatzaileen esanetan 20.000-25.000 lagun elkartu ziren. Ertzaintzaren Etxe aurrean testu bat irakurri zuen Jon Jauregi Beasaingo alkateak, atentatua gogor gaitzetsiz, hildako bi ertzainen kide eta senideei elkartasuna adieraziz

eta ETari behin betikoz armak uzteko eskatuz, "bizitza eskubidea beste gauza guztien gainetik baitago". Manifestariak minutu inguruko txalo zaparradaz bukatu zuten ekitaldia.

Manifestazioan alderdi politiko guztietako ordezkariak bildu ziren, Batasunakoa izan ezik. Batzuk aipatzearen, Garaikoetxea eta Ardanza EAEko lehendakariak, Xabier Arzalluz EAJko lehendakaria, Begoña Errazti EAKo lehendakaria, Javier Madrazo IU-EBeko koordinatzailea, Mayor Oreja eta Iturgaitz EAEko PPko buruzagiak, Nicolas Redondo Terreros PSE-EEko idazkari nagusia, Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusia, Mertxe Agundez EAEko Arartekoa, Enrique Villar Espainiako Gobernuko delegatua EAEn, Jose Blanco PSOEko Antolakuntza idazkaria, Manu Montero EHUKo Errektorea, Jesus Egiguren, Maria San Gil...

Nagusi
Optika
*Osakidetzarekin
hitzarmenari atxikiak*
☎ 943 161 999 Nagusia, 10 BEASAIN

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta
ALTZAGA
AZKEN ETXEBIZITZAK!
Guztira 180m² + lorategia
Informazioa:
Lanegunetan: 943 16 21 92
Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)

**GENERALI**
Aseguroak
IÑAKI ARIN BAZTARRIKA
Zorionak eta Urte Berri on!
Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA
Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A
Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Kepa Mujika Espainiaren esku uztekotan dira abenduaren 29an

Entrega galerazteko hainbat ekimen ari da burutzen

Ordiziako Kepa Mujika Garmendia euskal preso politikoak, abenduaren 30ean betekot du Frantziako ezarritako kartzela zigorra eta abenduaren 29an Espainiako polizia-aren esku geldituko da. Lan-nemezan kartzelan dago. Kepa Mujikak abenduaren 10ean gose greba hasi zuen, bere entrega egunera arte. "Gose greba honen helburua, Estatu espainiarreko poliziaren eskuetan ahalik eta osasun egoerarik larrienan entregatua izatea da, hau izanik jasan ditzakeen torturak ekiditeko modu bakarra. Aipatzekoa da, Kepak, azken urteetan buruturiko

gose greben ondorioz osasun arazo larriak dituela. Azpimarratu nahi dugu, bere gorputzak jada ez duela urrik onartzen, honela, gose greba berez gogorra bada, Keparen kasuan are eta larriagoa eta gogorragoa bilakatuko dela. Beraz, ezin ahantz genitzake guzti honek Kepari etorkizunean ekar diezaietkiokeen osasun arazoak", diote Mujikaren sendiartekoek kezkatutik.

Protesta ekimenak

Entrega honen aurka, Ordizian hainbat protesta ekintza ari dira egiten. Tartean, sinadura bilketa ari dira egiten,

Frantziako agintariei eskutitzak bidaliz, entrega hau ez gauzatzeko eskatuz.

Abenduaren 29ra bitartean antolatutako ekintzak hauek dira:

Abenduak 23: 19:00etan, Ordiziako Garagartza plaza-
tik abiatuta, manifestazio isila.

Abenduak 24: Baionara joango dira ikatza botatzera.

Abenduak 26: giza katea.

Abenduak 28: 6 ordutako kontzentrazioak, sektoreka banatuta. 20:00etan, Etxerat-en enkartelada.

Abenduak 29: 12 orduko kontzentrazioak.



Juan Mari Olano, atxilotua

Abenduaren 3an Baionan atxilotu zuten Juan Mari Olano gaintzarra. Urriaren amaieran Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kideak atxilotu zituztenean Olano ez zegoen etxean. Harrezkeroztik, Iparraldean egin-dako hainbat ekitaldian azaldu da. Kartzelan sartu dute eta Baltasar Garzon epaileak eskatu du Olano-ren estradizioa.

Eugenio Irastorza presoaren askatasuna eskatuz su-katea

Abenduaren 2an, Eugenio Irastorza preso ordiziarren askatasuna eskatzeko su-kate berezia egin zen Ordizian, Ordiziara plataformak antolatuta. Irastorzaren etxetik, Altamiratik, Garagartza plaza-raino joan ziren. Otsailean 22 urte egingo ditu kartzelan Irastorzak. Su-katearekin ordiziarrek kartzelan daraman urte eta hilabete kopurua adina kandela eraman zituzten

ekimenean parte hartu zutenek. Hau da, 21 urte oso eta 9 hilabete; 261 hilabete. Ekimenean parte hartu zutenek, 'Eugenio etxera' zioen kartela eraman zuten lepotik zintzilik.

1995. urtetik aske egon beharko luke kalean, zigorraren hiru laurdena orduan bete baitzuen. Almeriako kartzelan dago ordiziarra.



Altamiratik Garagartzara giza katea egin ondoren, Garagartza plazan bilkura ixila egin zuten.

Kontzentrazioaren amaieran postal erraldoi bat idatzi zuten bertaratutakoek, Irastorzari bidaltzeko.

X A·X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN

☎ 943 02 73 33 Faxa: 943 02 79 39

San Inazio, 5 BEASAIN

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



Ormaiztegi: Ekaitz taberna behera

Abenduaren 2an, goizeko 8ak aldean, Ormaiztegiako Ekaitz tabernaren zati bat behera erori zen. Errekaren gainean eginda dagoen zatia erori zen. 30 lagun zauritu ziren. Urte osoan taberna itxita egon da baina festetarako gazte batzuk taberna alokatu zuten.

Auto istripua Etxegaraten

Joxe Martin Epelde (52 urte, Beasainen bizi zen) eta Ramon Zaldua (47 urte) ezkiotarrak, abenduaren 10ean hil ziren Etxegaraten, auto istripuan, Altsasuko Sunsundegi lantegira laneira zihoazela. Auto berean zihoazen beste bi zumarragar ere hil ziren.

Bista Alaiako bizilagunak etxetik kanpora

Beasaingo Bista Alai kaleko etxeetako 16 familia euren etxeetatik kanpo daude abenduaren 9az geroztik, pitzadurak direla eta zegoen arriskuagatik. Bista Alai kaleko 2. zenbakiko bizilagunak lehenagotik zeuden etxea utzita. Familiartekoen etxeetan eta inguruko hoteletan daude bertako bizilagunak. Pitzadurak zerk eragin dituen aztertzen ari dira adituak. Aurrealdean egiten ari diren etxebizitza lanen ondorioz sortu dira pitzadurak bizilagunen esanetan.



Eguberrietako azoka berezia, abenduaren 26an Ordizian

Ordiziako urteko azken azoka berezia, Eguberrietakoa izaten da eta eguna ere gerturatu zaigu dagoeneko. Abenduaren 26an izango da. Beti Alai pilotalekuan, kapoi, antzar eta indioiloak... eta oreinak; Plaza Nagusian, errezil sagar, fruitu, fruitu lehor... erakusketak... denetarik izango da Ordizian. Egun honetan bertan, goizean, Goimen elkarteak Goimen ideia berritzaileen sari-banaketa egingo du udaletxean.

Etxebizitza plana

Abenduaren 4an, Javier Madrazo Etxebizitza sailburua eta Antton Karrera parlamentariak (biak IU-EBkoak), Ordizian izan ziren etxebizitza plan berriaren berri ematen.

'Osasunak euskaraz baleki!'

Uemak, ELA eta LAB sindikatuek 'Osasunak euskaraz baleki' kanpaina jarri dute martxan, Osakidetza ardura-dunei, ospitale, anbulatorio eta osasun zentroetan euskararen normalizazioa aurrera eramateko eskaria eginez. Anbulatorioan buzoï eta txartel bereziak daude horretarako eskaria egin dezagun.



Umeen arropa denda

Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!

☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA



sugaar

A s t o k a l e
O R D I Z I A



Gabon
zoriontsuak
denoi!
Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA



Ataun 1950 inguruan

'Landarlan': Goierriko natur- ingurumenaren alde

**"Goierritarrok
ezer gutxi
dakigu geure
landa edo natur
ingurunearen
ezaugarriez,
kalitateaz, eta
hauen eraginaz
gugan"**

Goimen Elkartetik, ingurugiro gaien bueltan arituko den talde dinamiko bat osatu nahi da, hitzaldi eta irteerak antolatuz, ezagupen eta sentsibilidade hori garatzen joan asmoz, eta printzipioz Landarlan izenez ezagutuko duguna. Horretaz aparte, saiakera modura, 2002. urtean, Goierritarra aldizkarian bertan guztien intereserako diren arlo desberdinak jorratuko dira, orri batean, atal berezia sortuz. Horretaz gain ekintza desberdinen berri emateko erabiliko da.

Goimen Elkartetik eskualde mailan bultzatzen ari diren landa garapen programaren le-

hen fasea amaitzeaz, bertan aztertutako zenbait gaien ekin-tzak jasoak diren honetan, az-pimarragarria izan da inguru-giroak azaldutako gabezia lan-da eremu inguruan. Hau da, berziklaketa, argi indar kontsumo, industriaren isuri eta emisioak, euri azidoa...alde batera utzita, Goierritarrok ezer gutxi dakigu geure landa edo natur ingurunearen ezaugarriez, kalitateaz, eta hauen eraginaz gugan.


Egun bioaniztasun, jasan-garritasun eta antzeko hainbat kontzeptu agertzen hasiak dira. Natur ingurune orekatuak potentzial ekonomiko garrantzitsua suposatzen du, bai turismo, zein bizi kalitate, zein paisai ikuspegi batetik, beste-

ak beste. Guzti hauetaz jabe-tzeak, atzetik dagoen ikaske-ta barneratzeak dakarren gi-zarte onura Goierritarren erronka dugu. Hori dela eta, Goimen Elkartetik, ingurugiro gaien bueltan arituko den talde dinamiko bat osatu nahi da, hitzaldi eta irteerak antolatuz, ezagupen eta sentsibilidade hori garatzen joan asmoz, eta printzipioz Landarlan izenez ezagutuko duguna. Horretaz aparte, saiakera modura, Goierritarra aldizkarian bertan guztien intereserako diren arlo desberdinak jorratuko dira, orri batean, atal berezia sortuz. Horretaz gain ekintza desberdinen berri emateko erabiliko da.

Hasierako lan taldean, jada gaiaren bueltan adituak diren zenbait lagun hurbildu zaizkigu. Horien artean Karlos Aseginolaza, Joxean Auzmendi, Joxe Ramon Agirre (marron), Jakoba Errekondo, Miren Askasibar, Xabi Akizu, Manex Aranburu...eta animatzen zarenok osatuko lukete. Hemen-dik beraz gure gonbidapena, parte har dezazuen (Goimenera etorri edo eta 943 16 12 44 deitu). Gure ahaleginak zuen erantzunaren baitan izango dute oihartzuna, bedi guztiona!

Landarlan

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Olentzero Santo Tomas egunez La Salle-San Jose ikastetxera

Olentzero maitea,

Lehenik eta behin mila esker mundu hau kolorez eta maitasunez bete duzulako. Badakigu jakin, ludia guda eta idarkeriaz zipriztintzen jarraitzen dugun arren, oraindik ere berri ona zabaltzera etortzekoa zarela. Ez zaizu ez meriturik falta!

Gure aldetik behintzat eskerrak eman nahi genizkizuke abenduaren 21ean, St. Tomas egunez gure ikastetxera etortzeko gonbitea onartu duzulako. Badakigu oso lanpetuta zabilazala, eta zure eskuzabaltasun neurrigabea eskertzeko, festa oparoa prestatu dizugu.

Goizean zu zatozenerako prest egongo dira ikasle kantariak. Elkarrekin joango zarete trikiti doinuaz alaiturik San Ignazio kaleruntz. Han gure txikitxoengonietorria zoragarria izango da. Kalejirak gustoko dituzunez, ederreran ederrena prestatu dizugu.

Antolatu dugun jaialdira ere etorri beharko duzu noski! Gehienbat... zer esango dizut ba? Zure jatun onaren fama La Salle-San Jose ikastetxeraino ere iritsi zaigu eta... txistorra pittin bat jateko parada ere hartuko duzu, ezta?

Beno, hilaren 21a arte orduan! Kontutan izan, Olentzero, zure ohoretan guzti

hau prestatzen ari direnen borondate ona. Guraso, irakasle eta ikasleak gogotik ari dira lanean! Badakigu hilaren 24an portatuko zarela eta hori dela eta, DBHko 4. mailakoek zozketatuko duten txerriki saskirako zenbakiren bat ere gordeko dizugu nahi izanez gero!

Hala ere, ez itzazu ahaztu gehien behar zaituztenak. Ekar iezaiezu itxaropena eta bizipoza. Pakeak guztiok babestuko ote gaitu noizbait! Agur bero bat eta St. Tomas egunerarte!

Ekinaren ekinez gailurrera iritsi eta izarrak behatz puntten laztanean lokartuko banitu, jakingo nuke jakin, ekinaren ekinez bidean zoriontasuna dastatzen dakiteentzat irekiak izan zirela kosmoseko itsaso eta hodei apartsu denak.

Zorionak eta urte berri on!

*Amaia Ezkiaga
(La Salle- San Jose ikastetxea)*

Andereño Kari, andereño Arantxa eta andereño Mari Karmen

Lazkaoko ikastolako 3 andereño dira horiek. Ziren esan beharko dugu aurrerantzean, kosta egingo zaigu baina; izan ere, jubilatu berriak dira hirurak.

Gaur ikastolako guraso garen bertako haur izandako gizon-emakumeok, aparteko ziurtasun bat badugu gure haurrak esku onetan daudela jakiteko, zientziaren, giza harremanen, norbanakoen garapenaren eta elkarrenganako solidaritatearen luze-zabalean heziak izango direla gure haurrak jakiteko. Haur ginela, harritu egiten ziren gure adiskideak "nazionaletan" edo "pralletan" zebiltzan gure adiskideak, sekula ez gintuztela jotzen edo sekula ez gintuztela nabarmenarazten (salbuespentxoaren bat izango zen) esaten genien eta gu ere harritu egiten ginen haiek irakasleekiko zutena beldurrezko harremana zela jabetzearen.

Gure andereñoekin, zuekin, harremana goxoa genuen, pertsonen arteko errespetuzko harremanak oinarri zirelarik. Zenbat oroitzapen! Zorioneko "inspektoreak" -¿Cuál es tu lengua vernácula?- galdezka etorri eta, zeri erantzuten genion ez genekiela, -el castellano- erantzuten irakasten zenigutenekoak, egunero "enparantzara" "binaka" kantari iriteten ginekoak, Gaztiñaundira arratsalde-pasa joaten gineneko-

ak, ikastola berria egin behar zela eta gurasoek auzo-lanean egiten zutenekoak...

Koxkortu ginenean irakasleekin "hika" egiten genuen (honetan ere bazen gustatzen ez zitzaionik).

Bitartean, beste eskoletan pralle zigortzaleak, maixu karrera bukatu berri lepatenteak, eskolako pasilloetan zaunkarik ere egin gabe pasatzen ziren sorgin erratzgabeak ziren jaun eta jabe, zientziaren mezulari soilak, alegia, eta hartan ere, inoiz zalantzarik agertu ezinak mugatuta, gehiegizko segurtasunak, autoritarismoz kutsatuak.

Batzuentzat berrikuntza pedagogikoa LOGSErekin hasi zen. Berdintasuna, elkarrenganako solidaritatea, baterako hezkuntza eta ezagutzaren gorentasuna bilatzea erronka zuen hezkuntza-mota baten aitzindari zuek izan zineten. Zuentzat ez zuten existitzen "Porque se me ha puesto aquí!", "Os vamos a machacar!" eta gero makina bat orri idazteko aukera eman duten esaldi zapaltzaile horiek. Eskerrik asko goxotasun hartan hezi gintuzuelako eta hartu gure haurrak hala hezten saiatuko garelako hitza.

Bukatzeko galdera bat: hori guztia jakinaraziko zenieten ikastolan lanean geroago hasi direnei, ezta?

Zorionak hiruroi lan-bizitzan egin duzuen guztiarengatik eta segi urte askoan lanean dagokizuen lekutik.

*Joxe Mari Ormazabal
(Lazkaoko ikastolako gurasoa)*

AMEB



Sagardotegia

Astelehen
gauetan
itxita.

TXOTX denborakdiaren irekiera
urtarrilaren 12an
Egun horretan sarrera doan eta gaua
trikitilariekin alaitua.

Zubierreka,9

943 16 25 23

LAZKAO

ABENDUAREN
21 GAUETIK
URTARRILAREN
1era ARTE
ITXITA

Eguberriak

Jesusek bere bidek
erakutsi ditu,
naiz sasi-jakintsuak
aurka aditu.
Kristauok badakigu
nai dunak kunplitu,
ezin dunai lagundu
berekun kupitu,
al dana zutitu,
ez gaiten zatitu,
dudan ez gelditu,
da ondo amaitu,
zuzenak bere sarik
jasoko ditu.

Berak erakutsia
paken nola bizi,
gizonan petralkeriz
ainbeste auzi,
naziok naziokin
dabiltz jota autsi,
errugabeak ilez
zein jarri nagusi,
ainbat gauz itsusi,
ditugu ikusi,
alkartuta asi,
au lortzen ikasi,
begiratu deiogun
Seme Jesusi.

Patxi Telleria

Odolezko zipriztinak zapata-zolan


Esanak esan, heriotza guztiak ez dira berdinak, ezta izango ere. Protesta egingo dugu Afganistango txikizioaren kontra, baina ez gaitu gehiegi hunkitzen; New Yorkeko sarraskiak izutu bai, baina urrutiegi dago hura ere pena barreneraino sartzeko. Beste batzuetan, ordea, hurbilago tokatzen zaigu, etxean edo herrian bertan, odol zipriztinak galtza-barrenak zikintzeraino ia, edo odol-arrastoa geratu den lekua zapaltzeko moduan gutxienez.

Ez dut politikazko artikulurik idatziko, lasai. Azken batean, zer esango dut ba nik beste askok lehenago esan ez dutenik, zuk zeuk pentsatu ez duzunik? Hala eta guztiz, Beasaingo ambulatorio aurretik egunean bi aldiz behintzat pasatu beharra izaten dut, eta ezin ahaztu hor gertatutakoa.

Idazle batek esan omen zuen behin, benetan ezagutzen dugun lurralde batean toki-izenak ez direla izen huts, gertaera edo pasadizoren bati loturik egoten direla beti gure gogoan: arbola horretatik erori eta txorkatila bihurritu nuen, plaza hartantxe egin genuen dantzan guk biok lehenengoz...

Pentsatzen jarrita, Goierri honetako mapak aspaldikoak ditu zauriak eta odol-markak: Matxinbentako belardi batean Koldo Lopez de Gereñu nola hil zuten oroitu naiteke, edo Sebas eta Pototo Gabiriako bidegurutzean nola akabatu zituzten. Baina badira zauri berriagoak ere, horrexegatik orbatzen gehiago kostako direnak: Ordiziako plaza bat beti izango da Yoyes hil zutenekoa, izen ofiziala beste bat izan arren; Lazkaorako bidegurutzean trafikoa zaintzeko inor ez dagoen egunean ere kostako zaigu ahazten bi ertzain haiek konejuen moduan nola akabatu zituzten.

Itsukeria estrategikoari gutakoa ez denarentzako erruki-falta osoa eransten badiogu, izutzekoa da emaitza, nola amaituko den antzeman ezinezkoa. Gabonak aldean iritsiko da seguru asko hau zure eskuetara, familia osoa biltzeko garaian. Etxe asko eta askotan izango dira beldurrez, hurrengo urtean denak bizirik egongo ote diren. Beste batzuetan espetxeratutako senidearen hutsa sentituko dute, baina kartzelan daudenentzat ere, iruditzen zait beste giltza-buelta batekin ixten dela ateko sarraila horrelako ekintzekin.



Xabier
Mendiquiren
Elizegi

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK,
ATEAK eta abar
✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Tel. eta Faxa:
943 886 558

Poltsikoko telefonoa:
616 698 288



Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Mairindireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza
☎ 943 88 00 84 ORDIZIA

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105
N-1 errepeidea, 419 Km **BEASAIN**

Arropetako etiketak

Arropetan egoten diren etiketek informazio erabilgarria ematen digute: lantegiaren datuak, produktuaren osagaiak, eta beraz, nola erabili behar dugun arropa horrek gehiago irauteko. Horregatik, garrantzitsua da etiketan, zer datu eta nola agertzen diren jakitea.

Etiketak irakurtzen dugunean arroparen prezioa eta neurria besterik ez dugu ikusten; hori gerta ez dadin, gainerako informazioa interpretatzeko argibideak emango dizkizugu.

Arropa guztiek eduki behar dituzte:

Egin, inportatu edo merkaturatzen duen enpresaren datuak, eta enpresaren industri erregistroko zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo marka erregistratua.

Arroparen osagaiak: arropa egiteko ehun edo



tela mota bakarra erabili bada, ehuneko ehun edo dena jar dezake, eta erabilitako ehun zuntzaren izena ondoren, edota izena mugagabean eta hutsa ondoren.

Ehun konposatuak izanez gero, ehun desberdinak portzentajeen bidez adieraziko dira, eta ehunekoak handienetik txikienera joango dira.

Ehun batek produktuaren pisuaren %85a badauka, ez da beha-

rezkoa beste osagaiak aipatzea.

Zenbait ehun badaude eta bakarrean ez badira guztiaren %10a baino gehiago, "beste batzuk" erabil daiteke, eta ondoren osatzen duten portzentaje osoa adieraziko da.

EKA

Euskal Herriko
Kontsumitzaileen
Antolaketa

Euskara txukunean

Hori gutxi balitz bezala

Astelehena, izugarrizko ajea, eta hori gutxi balitz, euskal taldeek porrot atzoko futbol jardunaldian! Zuzena ote da futbol zaleren batek (futbolero, agian?) egindako adierazpen hori? Bada, ez! Zuzena izan dadin **bezala** aditzondoa behar du. **Hori gutxi balitz bezala, euskal taldeek porrot egin zuten atzoko futbol jardunaldian!**

Beste adibide bat: **Esandako guztia gutxi balitz bezala (EDO: esandako guztia nahikoa ez dela), paper pila bat eskuratu dio.**

Dena den, **kontuz! Gutxi balitz forma, bezala** gabe, erabil daiteke, baina beste egoera batean, beste zerbait adierazi nahi dugunean. Adibidea: **Hori gutxi balitz, beste bat erosiko genioke!**

Eta zorioneko **bezala** honekin amaitzeko, ohiko beste akats baten berri emango dugu. **Ikus adibidea:**


- **Txerri txuletak nahi ditut!**
- **Zenbat bezala?**

Esan beharrik ere ez dago galdera horretako bezala hori sobera dagoela. Gaztelaniaren eraginez egiten den akats hori maiz antzean entzuten baduzue, badakizue, zuzendu!

Maizpide Euskaltegia

OSKARBI

OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.



K. Nagusia, 25
T 88 19 44 ORDIZIA

LIBURU DISKO BIDEO JOKU

AZOKA BEASAINEN

NOIZ: Abenduaren 18tik 24ra zabalik (biak barne)

NON: Kale Nagusia, 28 - BEASAIN

ORDUTEGIA: Egunero asteburuak barne, arratsaldeko 5etatik 8etara. Astearte eta larunbatetan goizez ere bai 10etatik 13 etara.

LAGUNTZAILEA: Beasaingo Udaleko Euskara Batzordea

ANTOLATZAILEA: **GOIZTIRI** 

Kontsumitzaileak haragi gehiago jaten hasi al dira berriz ere?

Bai.

Txekorraren ala behiaren haragia duzu nahiago?

Behiarena.

Oilaskoa, konejua ala txerria?

Txerria.

Nola antzematen da haragia samurra dagoela?

Itxuraz antzematen zaio normalean. Hitzez adierazten ez dakit, baina koipe pixka bat eduki behar du.

Txuleta hezurrik gabe ala hezurrarekin?

Hezurrarekin.

Haragia asko ala gutxi eginda?

Gutxi eginda.

Haragiari laguntzeko edari egokiena:

Ardo beltza.

Gabonetarako menua:

Jarritakoa jarri eta kito, inongo protestarik gabe.

Gabonetarako plana:

Plan kaxkarra bi umerekin.

Urte Berriari nola emango diozu ongi-etorria?

Umeek uzten badidate, lotan.

Zer eskatu diozu Olentzerori?

Osasuna.

Eta Urte Berriari?

Aurrekoa baino okerragoa ez dadila izan.



**Xabin
Azurmendi**


Azurmendi harategia

Zenbat euro balioko du xerra kilo batek?

Gutxi gora-behera, 8,9 euro.

Eta oilasko batek?

Gutxi gora-behera, 1,5 euro.



KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, **opariak ere lortu** ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako **sarreraren zozketan** parte hartu, eta **bi pertsonarentzako bidaia** baten zozketan ere bai, gure taldea

bere desplazamenduetako batean laguntzeko. Gainera, 2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, **CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen**a, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.

www.kutxa.net



kutxa

zure diruaren balio erantsia

Euroa erabiltzeko garaia heldu da

Otsailaren 28ra arte pezetak ere erabili ahal izango ditugu

Urruti ikusten zen baina hemen dugu. Hainbeste kanpaina eta prestakuntzaren emaitzak ikusteko garaia iritsi da. Hemen dugu euroa.

300 milioi europarrontzat 2002. urteko lehen eguna historikoa izango da. Orain arte erabili ditugun txanponak bazterrean utzi eta euroari ongi etorria egin beharko diogun eguna baita. Alemania, Austria, Belgika, Finlandia, Frantzia, Grezia, Espainia, Irlanda, Italia, Luxemburgo, Herbeherak eta Portugalen diru berbera erabiliko da aurrerantzean.

7 billete eta 8 txapon. Billeteak leku guztietan berdinak izango dira. Txanponak, ordea, alde bat berdina eta bestea herrialde batetik bestera aldatuko dena. Hala ere, txanponak leku guztietan erabiltzeko aukera izango da.

Billeteak

5, 10, 20, 50, 100, 200 eta 500 euroko billeteak izango dira. Txikitik handira, kolore ezberdinetakoak. Alde batean zubiak ditu irudi, erromatarren garaitik hasi eta aro modernoraino. Herrialde ezberdinen arteko lankidetzaz irudikatzen dute zubiak. Beste aldean, ateak eta leihoak ditu, hauek ere garai ezberdinetakoak. Zabalatasun izpiritu irudikatzen dute.



Euroa

Zentimo 1: 1,7 pezeta.
2 zentimo: 3,3 pezeta.
5 zentimo: 8 pezeta.
10 zentimo: 17 pezeta.
20 zentimo: 33 pezeta.
50 zentimo: 83 pezeta.
euro 1: 166 pezeta.
2 euro: 333 pezeta.
5 euro: 832 pezeta.
10 euro: 1.664 pezeta.
20 euro: 3.328 pezeta.
50 euro: 8.319 pezeta.
100 euro: 16.639 pezeta.
200 euro: 33.277 pezeta.
500 euro: 83.193 pezeta.

(Gutxigorabeherakoak dira prezioak)

Txanponak

1, 2, 5, 10, 20 eta 50 zentimokoak eta 1 eta 2 eurokoak izango dira txanponak. Euro bakoitzak 100 zentimo dauka. Hauek ere neurriaren arabera eta kolorearen arabera bereiziko dira. Txanponik handienak, 1 eta 2 eurokoak, bi kolore izango ditu; 10, 20 eta 50 zentimokoak horixkak dira eta 1, 2 eta 5 zentimokoak, kobre kolorekoak.

Lehen esan bezala, txanponen alde batean, herrialde bakoitzaren ezaugarriak azalduko dira. Gure kasuan, Espainiar Estatuan, 1 eta 2 eurotan, Juan Carlos erregearen irudia azalduko da; 10, 20 eta 50 zentimokoetan, Miguel Cervantes idazlea, eta 1, 2 eta 5 zentimokoetan,

Santiago de Compostelako katedralaren fatxada.

Epeak

● 2001eko abenduak 15: Euro diru-zorroa eskuratu ahal izan zen finantza erakundeetan, (2.000 pezetako balioa duten 43 euro-txanpon) ohitzen joan gaitezen.

● 2002ko urtarrilak 1: Urtarrilaren 1eko 00:00etatik aurrera, finantza erakundeetan kutxazainek euroak bakarrik emango dituzte.

● 2002ko urtarrilak 2: Egun honetatik aurrera, finantza erakundeek euroak bakarrik emango dituzte, bai billeteetan bai txanponetan.

● 2002ko otsailak 28: Egun hau iritsi arte komertzioetan eurotan zein pezetatan ordaindu ahal izango da, baina kanbioak eurotan bakarrik emango dira.

● 2002ko martxoak 1: Pezeta betirako desagertuko da, eta euroa bakarrik izango da legezko moneta.

● 2002ko ekainak 30: Pezetak euroez trukatzeko azken eguna izango.

● 2002ko uztailak 1: Egun horretatik aurrera, Espainiako Bankuan bakarrik trukatu ahal izango dira pezetak euroez.

Aholkuak

- 2002ko urtarrilak 1 baino lehen ez onartu euro billeteak.
- Kutxazain automatikoak, bankuak, komertzioak,... erabili lehenengo euroak eskuratzeko.
- 2002ko urtarrilak 1 baino lehen bankuko kontuan ingesatu erabili behar ez dituzun pezetak.
- 2002ko urtarrilaren 1etik bertatik hasi euroak erabiltzen, pezetak euroekin ez nahasteko.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27



BEASAIN



✓ Ileapaindegia

✓ Edergintza

✓ Solariuma

ZORIONAK
ETA URTE
BERRI ON!

Nafarroa Etorbidea, 37

☎ 843 88 02 97

BEASAIN

Kontseiluak diru bilketa egingo du bere egitasmoak aurrera ateratzeko

Azken pezetak eta lehen euroak euskararen alde

Euskararen gizarte erakundeek Kontseiluak diru bilketa egingo du euskararen normalizazio prozesu lanean jarri dezan. Horretarako itsulapikoak jarriko dira herritako taberna eta dendetan, abenduaren 15etik otsailaren 28ra bitartean. Azken pezetak edo liberak eta lehen euroak bildu nahi ditu Kontseiluaren kanpaina honekin.

‘Azken pezetak-liberak eta lehen euroak euskararen alde’ kanpaina jarri du martxan Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak, euskararen normalizaziorako egitasmo desberdinak aurrera atera ahal izateko. Hizkuntza normalizazioa sustatzeko ekimenak finantzatzeko dituzte kanpainen bildutako diruarekin. “Euskara bere le-



kura eraman arte proiektuak sustatu eta bultzatzeko erabiliko da dirua”, esan du Xabier Mendiguren Kontseiluko Idazkari Nagusiak. Bai

Euskarari Akordioa eta gizarte eragileen konpromiso prozesuak herriz herri; Bai Euskarari Ziurtagiria; eus-kalgintzaren ekintza plana

egungo une kritikoetan; Hizkuntz Eskubideen Behatokia...

Dirua biltzeko itsulapikoak jarriko dira saltoki, taberna eta elkarteetan. Txanponak eta billeteak jasoko dira, eta guztiak (txanpon, billete, euro, pezeta edo beste txanpon batzuk) itsulapiko berean.

Otsailaren 28ra arte

Urtarrilaren lehenetik aurrera euroa erabiltzen hasiko da Euskal Herri osoan. Hartara, itsulapikoak abenduaren 15etik otsailaren 28ra jarrita izango dira saltoki eta tabernetan. Euskal Herri osoan 10.000 itsulapiko jarriko dira.

“Euskara eguneroko bizitzako arlo guztietara zabaltzea nahi dugu, hizkuntza normalizazioa lortzeko urrats asko egin baditugu ere, oraindik ere asko daukagulako egiteko”, esan du Xabier Mendigurenek.



Zorionak
eta
Urte Berri
on!



Tel. faxa: 943 16 30 26
Goierri kalea, 10 ORDIZIA



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

943 88 94 82

BEASAIN

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

Abenduaren 20an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik,

Dionisio Amundarainek

'Anton Abbadia saria 2001' jasoko du

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1996an Anton Abbadia saria sortu zuen, euskararen normalkuntzaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona edo elkarteentzako jarduna jende aurrean aitortu eta saritu nahirik. 2001ko saria, Dionisio Amundarain itsasondoarrak jasoko du, bihar, abenduak 20, arratsaldeko 7etan, Foru Aldundian bertan.

Goierriko 17 erakundek, talde eta elkarteak, Dionisio Amundarain Sarasola itsasondoarra proposatu zuten irailean, 'Anton Abbadia saria, 2001' erako. Aurten 6. urtez banatuko saria. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Elkartea Kulturala, Maizpide kooperatiba, Gerriko S.A., Lazkaoko Udala, Goierritarra Aldizkaria, Goierritarrak Kultur Elkartea, Goierriko Goiztiri-AEK, Lazkaoko San Benito Ikastola, Goierriko Bertsolari Eskola, Ordiziako Argi Berri Elkartea, Ordiziako Hitzaro Euskara Taldea, Segurako Elorri Kultur Elkartea, Zaldiabiako Iztueta Fundazioa, Ga-




Anton Abbadia saria 2001

Antone D. Abbadia

biriako Osinalde Elkartea, Lazkaoko Beneditarrak eta Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa. Erakunde, talde eta elkarteoi, gutxi edo gehiago, euskara eta euskal kultur-gintza mailan oinarrituko laguntza eman digu Dionisio Amundarainek. Bi milioi pezetak jasoko ditu saritzat itsasondoarrak.

Anton Abbadia 2001eko saria nori eman erabakitzeko 7 lagunek osatu dute epaimahaia: Luis Bandres Kultura eta Euskara diputatua, Lorea Leanizbarrutia (Euskararen Normalkuntzako zuzendari nagusia), Baleren Bakaikoa, Maria Jose Olaziregi, Andoni Sagarna, Karnele Esnal eta Sebastian Kerexeta.

Beste saririk bada euskararen inguruan, baina gehie-



Dionisio Amundarain

Itsasondon jaioa 1930ean. Hamaika anai-arreba. Bostei urte zituenean baserriko lanetan laguntzen hasi zen, batez ere ardiak zaintzen. Hamar urterekin Lazkaoko Beneditarren komentura joan zen, inork behartu gabe, bere gustuz. Oinarrituko Heziketa, nobiziatua eta gaineratiko ikasketak bertan egin zituen. Parisera joan eta urtebetez Teologia ikasten jardun zuen. Ondoren beste ur-

te bete Erroman, Filosofi gaiak sakontzen.

Estibaltzen hiru-lau urtetan egon ondoren, Lazkaora itzuli zen, euskararen munduan erabat murgildu eta klaseak ematen eta itzulpenak egiten hasi zen. Klandestinitateko lanak ziren euskararen inguruan egindakoak, baina komentuko giroa euskararen aldekoa zenez, arras, lagun izan zuen bere zereginetan.

netan alor berezietakoak dira edo jende adituentzat eginak. Anton Abbadia sariak esparru zabalagoa hartu nahi du: euskararen erabilera arnasberritu, gizarteratu eta hedatzeko pertsona edo elkarte "oinezkoen" jardunaren aitortpen izan nahi du. Sariak giza alorrean egindako ahalegin isila onestea bilatuko du, eta urte luzetako sustrai sakonez etorkizunerako eredugarri izan daitezkeen jokabideak sustatzea.

Gaienera, Anton Abbadia-oren oroimena berrituz, sariak euskaltzaleen biltzar txiki bat ere izan nahi luke: urtero, euskalgintzan ari direnen harremanak sendotu eta gogoberritu nahi dira sari ematearen inguruan.

Hurrengo alean izango dugu Dionisio Amundarainen bizitzaren berri luzeago eta sakonago, baita sari-banaketaren berri ere. Ondoko koardroan, Dionisioren lehen urteen berri duzue.

Arantxa
Lentzeria
Eguberri on!
J. M. Barandiaran, 3
943 88 76 15 ORDIZIA

Urte Berri on!
KULSKA
ARANA, 1
943 88 93 88
BEASAIN
LURRAZPIKO JAIA!!

JOS-BIEL

ILEAPAINDEGIA


ZUTIKAKO SOLARIUMA

KOSMETIKA OSAGAIK

Urdaneta, 15 ORDIZIA

☎ 943 88 82 52

Gabonetan:
bezeroen artean
bertako
zerbitzuen
zozketa bereziak



O. P.: 8.800 pta. (52,89 €)
GABONETAN
6.850 pta. (41,17 €)

OHIKO PREZIOA 14.500 pta. (87,15 €)
GABONETAN
11.500 pta. (69,12 €)

O. P.: 7.900 pta. (47,48 €)
GABONETAN
5.950 pta. (35,76 €)

O. P.: 18.700 pta. (112,39 €)
GABONETAN
13.700 pta. (82,34 €)

O. P.: 16.000 pta. (96,16 €)
GABONETAN
11.000 pta. (66,11 €)

O. P.: 8.990 pta. (54,03 €)
GABONETAN
6.800 pta. (40,87 €)

O. P.: 3.950 pta. (23,74 €)
GABONETAN
2.600 pta. (15,63 €)

O. P.: 3.400 pta. (20,43 €)
GABONETAN
2.400 pta. (14,42 €)

R.P.S. N° 164/99 I.L.G.

HIRUGARREN MUNDUAREKIKO SOLIDARIOAK

MULTIOPTICAS
BERGARA
ARRASATE
ORDIZIA
EIBAR
ERRETERIA

ASKO EGIN DEZAKEZU

Bergara, Arrasate, Ordizia,
Eibar eta Erretereriako
MultiOpticas-ek
deskontu bono bat jaulki du,
herrialde behartsuenei
laguntzera anima zaitzen.

MULTIOPTICAS-ek bere gain hartzen du
bataurrekoak dagokien tokira
belarzteko erantzukizuna.

Ekarri erabilitako bataurrekoak
eta guk behar handiena dutenei
bidaliko dizkiegu. Trukean,
deskontu bonoa emango dizugu
bataurreko berriak eros ditzazun.

4.600 DESKONTU
BONOA
27,65 € PEZETARAINOKO

MULTIOPTICAS
Zorionak 2002



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

Ordiziako Tabernarien Elkartea



*Eguberri zoriontsuak
eta Urte Berri on!*

OIANGU
T A B E R N A
◆ ◆ ◆

ETXETXO
T A B E R N A



KOIOTE
PUB



TXIMI STA
Sagardotegia



MIAMI
kafetegia



OLANO
TABERNA



ALDASORO
Taberna - Jatetxea

LA GRANJA
TABERNA



Urtarrila

7: **Astotxo festa** ospatu zuten Lazkaon.

7: **Asier Irastorza** ordiziar preso libre gelditu zen 7 urte eta erdi kartzelan egon ondoren.

8: **Mila Ioldi** ataundar errefuxiatua atxilotu zuten Mexikon eta Madrilgo Soto del Realgo kartzelan sartu zuten, ETako kide izatea leporatua.

12: **CAF-Elhuyar sariak** banatu ziren. Iñaki Alegria, Xabier Arregi eta Bertol Arrieta izan ziren sarituak Zientzia Dibulgaziorako VII. sariketan.

13: **Ataun Aiako** elkar-
tea inauguratu zen.

14: **Eulalia Garmendia** zaldibitarak 100 urte bete zituen.



13-14: **Iñaki Agirre** ataundarrak Euskadiko Txapela eskuratu zuen 60 metroko korrika proban. 300 metroko proban 2. izan zen. **Aitor Estala lazkaotarrak** 60 eta 200 metroko lasterkaldietan bigarren izan zen.

20-21: **San Sebastian** jaiak ospatu ziren Beasaingo Garin auzoan eta Segurako izen bereko ermitan.

21: **Lierni Armendariz** beasaindarra atxilotu zuen Bartzelonako Udaltzaingoak, ustez ETako kide delakoan.

23: **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoak Nikara-

guan izan ziren otsailaren 7ra bitartean. Pailazoen hurrengo ikuskizunerako materiala biltzen aritu ziren, irribarrea sortzearekin batera.

26: **San Joan Bosko** eguna ospatu zuten irakas-kuntza ertainekoek.

27: **San Blas** jaiak hasi zituzten Idiazabalen, otsailaren 4ra arte.

28: Idiazabalgo **XXI. Herri Krosa** jokatu zen.

31: **Goiturren** eskutik, Goierriko turismo informazioa zabaldu zen Madrilgo Fitur azokan.



26: **Lutxi Zaldia** ordiziar-
rak Argia Sari-
en 'Sari berezia' jaso
zuen. Betiko har-
pidedunak saritu
nahi izan zituen
Argia astekariak.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

RENAULT
AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Pottoka
KAFETEGIA
Legazpi kalea, 3
ORDIZIA

● Pintxoak
aukeran
● Ogiltartekoak

Zorionak eta
Urte Berri on!

O t s a i l a



2: Beasaingo azokak 75. urteurrena ospatu zuen. Gudu-garretako Agerre-Goena baserriko Iñaxi Esnaola eta Lazkaoko Untzindegi baserriko Pakita Gerra omendu zituen Udalak.

2: Antzerki Garaia hasi zen Beasaingo eta Ordiziako udalek antolaturik.

2: Metalgintza arloak greba egin zuen, ELA, LAB eta ESK sindikatuek deituta, lan hitzarmenen negoziazioan patronalaren jarrera aldaraztea eta 35 orduko lan astea eskatzeko.

3: X. Beasain idazlehiaketako sariak banatu ziren. Irati Goikoetxea, Oroitz Maiz, Eñaut Sarriegi, Garazi Auzmendi, Aritz Aranburu eta Maddalen Urdangarin izan ziren lehenengo sariak jaso zituztenak, atal ezberdinetan.

3: Mikel Gaztañaga Itsasondoko txirindulariak Euskadiko Sei Orduetan parte hartu zuen eta bera izan zen protagonista nagusia: keirin eta abiadura probak irabazi zituen.

4: Santa Ageda bezperako eskeak egin ziren.

4: Ekain Arruabarrena lazkaotarrak elbarritu fisikoen iraupen eskiko lehiaketa irabazi zuen Baqueira Beretan.

5: Odolki Kofradiaren XVI. kapitulua ospatu zuten Beasainen. Maria Oruna Miss Euskadi, Periko Alonso futbol entrenatzailea eta Antonio Jimenez Madrilgo Etxegarate jatetxeko nagusia

izendatu zituzten ohorezko kofrade.

9-10: Laburmetraien ziklo berezia izan zen Ordiziako Barrenan.

10: Idiazabalgo Gazte-txea inauguratu zuten.

15: Jesus Mendizabal irule zaldibitarak, Gipuzkoako Merkatal Ganbarak artisauei ematen dien saria jaso zuen.

16: Irizar PB autobus berria aurkeztu zuen Ormaizte-giko Irizar kooperatibak, Donostian.

17: Ordizian Kalderero-en eguna ospatu zen, inauterien iragarpen gisa.

17: Josu Sarriegi lazkaotar futbolariak Alaves taldearekin debutatu zuen lehenengo mailan.

19: Kilometroak 2001en barruan, hitzaldi sorta izan zen aste osoan Beasaingo Usurbe antzokian. Txepetx hizkuntzalaria, Bernardo Atxaga idazlea, Andres Arizkorreta CAFeko zuzendaria eta Pedro Migel Etxenike fisikaria izan ziren.

22: Iñaki Dubreuil Ordiziako PSE-EEko zinegotziaren aurkako atentatua izan zen Martutenen. Larriki zauritu zen ordiziarra baina onik atera da. Atentatuan, 2 langile hiltzeaz gain, Igor Larrea legorretarra ere larriki zauritua izan zen.

22: Ordiziako Gazte-txean 14 lagun atxilotu zituen Ertzaintzak, ETArekin zerikusia zutelakoan. Guztiak libre gelditu ziren. Gaztetxeak gogor salatu zuten Ertzaintzaren jarrera.

22: Lazkaoko Industrialdea inauguratu zen.

23: Aloña Muñoa segurarraren etxera joan zen Ertzaintza baina Muñoa ez zegoen etxea. ETAko Donostia komando batekin zerikusia izatea leporatu zien.

23: Kilometroak kanta aurkeztu zuen jendaurrean, Ur Da Lur taldeak.

23: Inauteri jaiak ospatu ziren herri ezberdinetan.

27: Mikel Martikorena korrikalariak Saharako maratoian parte hartu zuen.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN



Martxo

1: Ordiziako **Baga Biga kulturgaiak denda** itxi zen.

1: 'Beasain esku-eskuan: **Murumendi'** liburua aurkeztu zuen Tomas Salazar beasaindarra.

2: **Mikel Zumarraga** pre-soa libre gelditu zen.

2: **Pello Gibelalde** beasaindarra, Real Sociadadeko lehendakari izateko hauteskundeetara aurkeztuko zela esan zuen. 22an izan ziren hauteskundeak eta ez zuen helburua bete.

3: **Martin Alustiza** pilotariak Ruben Belokirekin batera, eskuz binakako finala jokatu zuen Olaizola I. eta Goñi III.aren aurka. Galdu egin zuen segurarrak.

3: Ordizian **Hegats igeriketako nazioarteko proba** jokatu zen Majori kiroldegian.

4: **Gabiriako rally sprinta** Jon Agirrek irabazi zuen.

5: **Kultur astea** hasi zen Olaberrin, martxoaren 11ra arte.

8: **Goierriko gida turistikoko berria** aurkeztu zen Ormaiztegi Zumalakarregi museoan.

8: Nazioarteko **Emakumezko langileen eguna** ospatu zen.

9: **Beasaingo Urbialde plazan lehergailu** batek eztanda egin zuen. Inork ez zuen erreibindikatu.

11: **Kofradia gastronomikoen bilkura** egin zen Beasainen. Modesto Irizar eta Pako Aranburu odolkgileak omendu zituzten.

11: **Euskadiko mountain bike opena** jokatu zen Itsasondon.



25: **Lore eta landare azoka** izan zen Seguran. Argazkian ikusten den bezala jende ugari bildu zen.

26: **Iparra-Hegoa** astea ospatu zen Seguran, Iparraldea gehiago ezagutzearen helburuarekin, apirilaren 1era arte.

23: **II. Igartza beka** irabazi zuten Xabier Etxeberria (Egun denak ez dira berdin') eta Jasone Osororen ('Korapiloak') lanak aurkeztu ziren.

23: **Ordiziako Gazte-txearen 15. urteurreneko** ospakizunak hasi ziren.

25: **Extremadurako eguna** ospatu zuten Ordizian.

29: Lazkaon **Kultural-dia** hasi zen, apirilaren 7ra arte.

30: **Udaberri Gazteko** ekitaldiak hasi ziren Beasainen.

31: Gabirian **Kultur as-tea** hasi zen eta apirilaren 8ra arte iraun zuen.

Gaztelu

● Iturgintza

● Berogintza

Zoriona eta Urte Berri on!

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN

ETXEBIZITZA BERRIAK SEGURAN

HERRI ERDIAN

✕ **Duplexa:** 4 logela, egongela, sukaldea-jangela, 2 bainugela.

✕ **Garaje** itxiak aparte.



Azken etxebizitzak!

ERAGIN S.L. inmobiliaria
 Tel.: 943 474699 - 609 40 30 81
 Marina Kalea, 10 - 1.F DONOSTIA

A p r i l a

2: 12. Korrika pasatu zen Goierritik.

2-8: Euroaren astea ospatu zuten Zegaman.

7: Gabirian **Osinalde bertso sariketan**, Ainhoa Agirreazaldegi bergararra izan zen irabazlea.

9-16: Kultur astea ospatu zen Gabirian.

10: Greba orokorra deitu zuen Ezker Abertzaleak.

15: Aberri eguna ospatu zen herrietan Udalbiltzak deituta.

16: Seguran, **hazi be-deinkatzea** ospatu zuten Sana Engrazi ermitan.

16: Zaldibian, **Saturdiko festa** ospatu zuten.

8-15: Aste Santuko **ospakizunak** izan ziren Seguran.

18: Artzain Eguna ospatu zen Ordiziako azokan. Ardien gaitza zela eta, ez zen ardirik izan kalean.

18: Goierriko Ingeniari Eskola inauguratu zen.

21: Apirileko feria ospatu zen Beasainen.



Ignazio Gar-mendia ormaiztegiarrak Eusko Jaurlaritzak emandako Joxe Mari Korta saria jasozuen enpresa munduan egindako lanarengatik.

26: Zegaman **Intxausti industrialde** berria eraikitzen hasi ziren.

27: Lazkaoko **San Prudentzio jaiak** hasi ziren.

28: Segurako **Iñaxio Imaz** erremonteko pilotariak agur esan zion pilotari.

28: Goierriko **bola txapelketa** bukatu zen. Antonio Alustiza zeraindarrak jantzi zuen txapela.

Ives rothers
BEASAIN

berriz aranburu

ERROPADENDA

Zorionak eta Urte Berri on!

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

MG
UJAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

Urte berri on!



Filipineta, 13 - behea
ORDIZIA

☎ 943 88 49 50

s.a.

ORDIZIAN ETA BEASAINEN KALITATERIK ONENeko ERAIKUNTZAK
ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

M a i a t z a

1: **Aralarko larreak** gaudarentzat ofizialki irekitzeko festa izan zen Larraitzen, Enirio-Aralar Mankomunitateak antolatuturik.

3: **Santa Kutz eguna** ospatu zuten Segurako, beheko auzoan.

3: **Errekarteko koaderno** liburua aurkeztu zuen Xabier Mendiguren Elizegik.

5-6: **Lazkaomendiko jaiak** ospatu ziren.

6: **Gazta eguna** ospatu zuten Idiazabal.

10-13: **Kataluniarrak** Goierri ezagutzera etorri ziren, Bartzelonako Euskal etxeko ardurauna eta El Periodico egunkariako kazetaria.

13: **Gasteizko Legebiltzarreko hauteskundeak** izan ziren. Goierriko datuak: EAJ-EA koalizioak 14.142

hau ere bai

✓ **Emilio Sanchez** lazkaotarrak Bizkaiko Bira irabazi zuen, ezinduen mailan.

✓ **Koldo Saratxaga** Ormaiztegiko Irizar kooperatibako koordinatzaileak, Euskal Enpresariarik Onenaren saria jaso zuen.



boto eskuratu zituen; EHk 5.589; PSE-EEk 3.122; PPK 3.078; eta IU-EBk 1.084.

zuten. Jostailu lehiaketa, berriz, Beasaingo Andramendi ikastolak.

15: **Legorretako Ugara Herri eskolakoak** Kanarietara joan ziren txangoan.

15: **San Isidro eguna** ospatu zen.

16: **Igartza hotela** zabaldu zen Beasainen, Oriamendi kalean.

18: **Sasieta sariak** banatu ziren. Kartel lehiaketa Zumarragako La Salle-Legazpi ikastetxeak eta Urretxu-Zumarragako Ikastolak irabazi

18: **Museoaren eguna** zela eta, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak, 'Tirabira Ormaiztegin' jokoa prestatu zuen haurrentzat.

19: **Haur eta gazteen eguna** antolatu zuen Kilmetroak 2001ek Beasainen.

19-20: **Ertaroko azoka** antolatu zen Ordizian.

20: **Gabiriako Goruntz dantza taldeak** 30. urteurrena ospatu zuen.

23: **Legorretako jaiak** hasi ziren.

23: Zegamako **Jesus Merchan Miguelek** 100 urte bete zituen.

25: Beasainen **Loinatz jaiak** hasi ziren.

27: **Zaharkinak** erakusketa inauguratu zen Zegaman. Baserriko tresna zaharrak bildu ziren.

29-30: Goierri ezagutzera **Bizkaian turismo alorrean lan egiten dutenak** etorri ziren.

30: **'Euskal Herriko Dantza txapelketa, 1977-2001'** liburua aurkeztu zuten Lierni eta Maixabel Elortza segurarrek.

Olagi Sagardotegia



Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

ARRIETA

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako ospakizunak

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak, filtroak, olioak, engrasea, frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak, harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

Ekaina

1: Gipuzkoako eskolar-
teko bertsolari txapelketa-
ko finala jokatu zen Beasai-
nen, Kilometroak 2001en ba-
rruan.

1: Poltsikoko ikuskizu-
nak egitaraua hasi zen Ordi-
zian.



2: Mikel Martikorena
korrikalariak 100 kilometro-
ko lasterketa egin zuen Kata-
lunian. 5. izan zen.

3-4: Arantzazura erro-
mesaldia egin zuten zega-
marrek.

1-4: Kultur astea ospa-
tu zen Itsasondon.

6: Lazkaoko Maizpide
Euskaltegiko ikasleak fina-
lista izan ziren Euskadi Irra-
tiak antolatutako euskalte-
gien arteko lehiaketan. Gal-
du egin zuten.

4: Altzagarateko jaia os-
patu zen.

4: Seguran Santa Barbara
eguna ospatu zen.

9-22: Otso festa kul-
tur astea ospatu zuten Atau-
nen.

10: San Adriango erro-
meria ospatu zuten idiaza-
baldarrek.

10: Igaratzan erromeria
izan zen ordiziarrek antolatu-
ta, Santa Anaren irudia jar-
tzeko helburuarekin.

14-17: Garagardo
festa antolatu zuten Lazkao-
ko gazteek.

15: 'Txelemin ta Txele-
mon' artazuritze-giroko an-
tzerkitxo berreskuratu zuten
Ataunen.

16: Korputz eguna os-
patu zuten Legorretan.

14-16: Kendu koo-
peratibak 25. urteurrena os-
patu zuen.

16-17: XXV. Euska-
diko Sueltoiko dantza tx-
apelketa jokatu zen Seguran.
Kimetz Larrañaga eta Ene-
ritz Epelde izan ziren irabaz-
leak.

18: Aitor Oiartzabal
CAFeko langilea hil zen
Washingtonen.

21: Beasaingo Udalaren
web orria aurkeztu zen.
www.beasain.net.

22: Oroimen ekitaldia
ospatu zuten Zegaman, etxe-
tik alde egin beharra izan zu-
ten Idoia eta Gurutze ahizpen
omenez.

23: San Joan suak egin
ziren herri guztietan.

24: Jentileen bideeta-
tik ibilaldi neurtua jokatu
zen Ataunen.

22: San Joan jaiak os-
patu zituzten Seguran, Ola-
berrin eta Ordiziako Otegi-
enea auzoan.

28: Mutiloako San Pe-
dro jaiak hasi ziren.

29: X. Gerriko Ikerlan-
sariketako sari-banaketa
egin zen Lazkaon. Iñaki Iri-
zar, Jorge Gonzalez eta Idoia
Villateren bisoi europarrari
buruzko lana saritu zen.

29: Ataungo Aian San-
ta Ixabel jaiak hasi ziren.

30: Garagardo azoka
antolatu zuen Ordiziako
errugbi taldeak.

hau ere bai

✓ Ekaitz Goikoetxea, Aitor Sarriegi eta Joxe Munduate
bertsolariek Euskal Herriko bertsolari txapelketan parte har-
tzeko txartela lortu zuten.

✓ Patxi Zubizarreta ordiziarrek 'Printze Txikia' liburua
euskarara itzuli zuen.

✓ Joxan Ormazabalek 'Josebiñe' liburua kaleratu zuen.

IPARRAGIRRE ANAIK, C. B.
KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO



✗ Depresioak
✗ Harremanetarako
arazoak

**Pedro Jose Lan-
da Gutierrez**
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

✗ Beldurrak
✗ Antsiak
✗ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN



MIRENTXU

Gabon
zoriontsuak
denoi!

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA



**MONT
BLANC**



Kale Nagusia, 1
☎ 943 88 14 57

BEASAIN

Nafarroa Etorbidea, 7
☎ 943 88 04 55

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO
APAINGARRIAK
- OPARIAK



SASIETA
MANKOMUNITATEA

Zorionak eta urte berri on!!

10 urte zurekin



Bukatzen ari den urte honetan ere, hainbeste lagundu diguzulako, eskerrak eman eta jai zoriontsuak opa nahi dizkizugu. Datorren urtean ere elkarlanean berdin jarrai dezagula.

Eta zure laguntza eskertzeko eta Sasietaren **10 urteak** ospatzeko, Eguberri hauetan, **oparitxo** bat jasoko duzu zure etxean. Opari horrekin batera **zozketa** batean parte hartzeko aukera ere izango duzu. **Sari asko dauzkagu, anima zaitez!**

URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobeak!

Prezio berean!



Kalitateko
Haragi
Fidagarria



Zorionak
eta ondo pasa gabonak

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA



Barandiaran ZERAMIKAK

Zorionak eta Urte Berri on!



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

U z t a i l a

1: Zegaman **Aizkorriko Lagunen II. eguna** ospatu zuten. Joanito Oiartzabal eta Edurne Pasaban mendizaleak omendu zituzten.

4: **Txemi Arteaga** libre gelditu zen, ia zortzi urte espetxean pasa ondoren.

8: **Antzizar triatloi proba** jokatu zen Beasainen, Arriarango urtegiaren inguruan.

8: **Lierniko erromeria** izan zen.

10: Beasainen **osasun-zentro berria** egitea onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Gobernu bilerak. Bernedo-enean egingo da 2002-2003 urtean osasun-zentro berria. Zaldizurretako bidegurutzetan errotonda edo biribilgune berria egitea aurreikusten da Beasaingo trafikoa arintzeko.

14: **Mikel Uribe** Legorretako ertzaina tiroz hil zuen ETak Leaburun. Protesta ekitaldiak egin ziren Legorretan.

14: **Txamarretzeko festa** ospatu zuten Zaldibian.



16: 2001-02eko **Beasain futbol taldea** aurkeztu zen.

hau ere bai

✓ **Beasaingo La Salle-San Jose** ikastetxeak Bai Euskarari ziurtagiria jaso zuen.

✓ **Esperientziaren eskola** antolatu zuen Goiekik, 55 urtetik gorakoentzat.

✓ **Joseba Beloki** txirrindularia 3. izan zen Frantziako Tourrean.

✓ **Egoitz Sukia** ataundarrak Eibar futbol taldearekin fitxatu zuen.

✓ **Bailarako I. pilota txapelketa** jokatu zen, Segura, Zegama, Idiazabal, Zerain eta Mutiloko pilotarien artean. Irabazleak: Lander Ugalde eta Ander Kaloka (Segura), Jon Mujika eta Eneko Arzelus (Zerain-Mutiloa), Ioritz Arizkorreta eta Jabi Rodriguez (Segura) eta Eneko Montes eta Iñaki Mujika (Segura).

15: Ordizian **raid, zaldien erresistentzia proba** jokatu zen.

20-27: Ordiziako **Santa Ana jaiak** ospatu ziren.

14-18: Gabiriako Aztiriako **Santa Marina jaiak** izan ziren.

22-23: Gabiriako **Alegi auzoko jaiak** ospatu ziren.

18-20: San Arkakuxo gazte festak izan ziren Zaldibian.

29: Legorretan **Juan Mari Jauregiri** omenaldia egin zioten, ETak hil zuen urteurrenean.

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 53 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin

ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.
Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan
Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.
Segurako Erosle, **Idiazabalgo** Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

Abuztua

10: Idiazabalen **ertzain baten etxeari** eraso egin zioten.

12-18: **Gabiriako jaiak** ospatu ziren.

14.17: **Andre Mari jaiak** ospatu ziren Zerainen.

22: **Oskarbi Jauregi, Xabier Makazaga,** Alaitz Intxausti eta Xabier Unanue atxilotu zituen Ertzaintzak ETArekin zerikusia zutelakoan. Lehenengoak biak kartzelan sartu zituzten ustez ETako Buruntza komando kide izateagatik. Intxausti eta Unanue libre utzi zituzten inongo kargurik gabe. Odei Galarragaren bila ere joan ziren baina ez zegoen etxean.

22: Bergaran izandako **lan istripuan** Ordiziako Alberto Rodriguez hil zen.

23: **San Bartolome jaiak** hasi ziren Zegaman, irailaren 1era arte.

26: Beasaingo **Aranburu Azpikoa** baserria erre zen.

29: **San Joan txiki eguna** ospatu zen Olaberrian.

31: Ormaiztegiko **Mikel Zumarraga** berriz ere kartzelan sartu zuten.

31: **Ataun San Gregorio**ko jaiak hasi ziren.

hau ere bai

✓ **Igartubeiti baserri museoa** inauguratu zuten Ezkio-Itsason. XVI. mendean baserriak nolakoak ziren ikusteko aukera ematen du Igartubeitik.



✓ **Bultziak**, euskara ikasleak etorri ziren Zaldibiara.



✓ **Mikel Lasa** Legorretako futbolaria Murtzia taldearekin fitxatu zuen.

✓ **Lenin mendiaren gailurrera** iritsi ziren Pedro Garcia, Jokin Aizpurua eta Sarasola anaiak. 7.134 metro ditu Leninek.

✓ **Errealak** Beasainen jokatu zuen abuztuaren 21ean.

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Eguberrietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak
- Enmarkazioak

© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 J.M. Iturrioz, z/g
TOLOSA BEASAIN

KAFEA TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

I r a i l a

1: Euskal astea ospatu zen Ordizian.

2: Arantzazura erromesaldian joan ziren Idiazabal, Mutiloa eta Segurakoak.

5: Ordiziako azoka berezia ospatu zen. Gazta txapelketa Larreako J.I. Gonzalez de Herediak irabazi zuen eta gazta erdiagatik 610.000 pezeta ordaindu ziren. Aralarko artzainek protesta egin zuten beraien aldarrikapenen alde.

7-9: Beasaingo Igartza auzoko jaiak ospatu ziren.

8: Kizkitzako amaren eguna ospatu zen.

8-9: Lierniko Andre Mari jaiak ospatu ziren.

9: Ehiz postuen enkantea egin zen Seguran. Posturik garestiena, Apota 13, 1.410.000 pezeta ordaindu ziren.

9: Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketako sari-banaketa egin zen. Alaitz Sarasola helduetan, Irati Goikoe-txea gazteetan eta gaztetxoetan Aritz Garin izan ziren sarrituak.



Ur depositua egin zuten Abaltzisketa, Orendain, Baliarrain eta Gaintzako ur hornidurari konponbidea emateko.

14-16: Itsasondoko Urkia auzoan agorreko Gurutze deunaren jaiak ospatu ziren.

12-23: Boluntario munduaren inguruko jardunaldiak ospatu zituzten Beasainen.

15-23: Kultur astea ospatu zen Zerainen.

19: IV. Igartza literatur bekako sari-banaketa egin zen. Algortako Unai Elorriaga izan zen irabazlea.

21-23: Itsasondoko jaiak ospatu ziren.

22: Autorik gabeko eguna ospatu zen Goierrin. Goierritarrek garraio publikoa maizago erabiltzeko sentiberatzea zen helburua.

22-30: San Migel jaiak izan ziren Lazkaon.

23: Azoka ekologikoa ospatu zen Zerainen.

23: Gabirian Pepe Arzelus eta Gillerimo Aldalur organo joleak omendu zituzten.

23: Esparruko erromeria ospatu zuten lazkaotarrak.

24: Beasaingo Laskai-bar auzokoek jaiak izan zuten.

27: Lazkaoko historia liburua aurkeztu zuten.

28-30: San Migel jaiak izan ziren Altzagan, Gaintzan eta Idiazabalgo Urtsuaran auzoan.

29: Salbatoreko hotela ireki zen berriz ere.

29-30: San Migel jaietako ospakizunak izan zituzten Ormaiztegin. 29an, pilotalekua inauguratu zen.

30: Josetxo Imaz memorialela jokatu zen Ordizia, Beasain eta Lazkao artean. 10 kilometroko lasterketa izan zen. Gizonezkoetan Imanol Cruz izan zen irabazlea eta emakumezkoetan, Amaia Intsausti olaberritarra.

30: Patxi Eskitxabel Legorretako presoari omenaldia egin zioten Legorretan. 21 urte daramatza kartzelan.



ARANDIA
Garajea

LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri on!

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea

ORDIZIA

U r r i a

4-13: **Santa Fe** jaiak ospatu ziren Zaldibian.



5: **Plaxida Insausti** garindarrak 105 urte bete zituen.

11-14: **IV. Artisaualdia** azoka izan zen Ordizian.

17: **Ordiziako azokak kokaleku berria** izango du datozen bi urteetan; Garagartza plazako karpa. Fruta saltzaileekin desadostasunak izan zituen Udalak eta bi astez ez zen fruta saltzailerik izan.

17: **Joxe Mari Urteaga** lazkaotarrak 'Ordaina zor nizan' liburua aurkeztu zuen.

18: **Bai Euskarari** akordioarekin bat egin zuten Ordiziako 85 bat gizarte eragilek.

19: **Udazken kulturala** hasi zen Beasainen.



20: **Jexux Etxeberria** Ataungo txatar-biltzaile eta bildumagilea hil egin zen.

20-28: **Kultur astea** ospatu zuten Ezkio-Itsason.

20-29: **Kultur astea** ospatu zuten Ezkio-Itsason.

21: **Euskal Herriko bertsolari txapelketa** hasi zen jokatzeko. Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Joxe Munduate, Aitor Sarriegi eta Ekaitz Goikoetxea aritu ziren lehian.

21: **Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa** egin zen Ormaiztegin. Galizeko arriskuan dauden Euskal Herriko hainbat animalia arraza bildu ziren.



7: **Kilometroak 2001** ospatu zen Beasainen, Andramendi Beasaingo Ikastolak antolatuta. Eguraldia lagun, 120.00 lagunetik gora hurbildu ziren euskarari eta Beasaingo Ikastolari laguntzera. Sean, Mikel Laboa eta Ur Da Lur taldearen kontzertua izan zen Antzizar kiroldegian.

24-28: **Kultur astea** ospatu zuten Legorretan.

26: **Gabiriako Beheko errota aterpetxea** inauguratu zen.

27: **II. gazte festa** ospatu zuten Lazkaon.

28: **Joxe Manuel Soroiz** legorretarrak prestatu zituen babarrunik goxoena Tolosako lehiaketan.

25-31: **Iparra eta Eduardoren** aldeko omenaldia izan zen Idiazabalen.

hau ere bai

✓ **Mari Anjeles Iñurrategiren** gaztak sarituak izan ziren. Euskal Herriko txapelketa berak irabazi zuen Lekunberrin. Pirinioetan, La Seu d'Urgellen, ere irabazle izan zen.

✓ **Ainhua Irastorza eta Simoni Begiristain** ordiziarrak atxilotuak izan ziren. Simoni Begiristain ETako Aranba komandoari laguntza ematea leporatzen diote. Ainhua Irastorza Amnistiaren Aldeko Batzordeko kide izateagatik atxilotu zuten. Biak kartzelan sartu zituzten.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

9:00etatik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

A z a r o a

9: Valladoliden **Cincho sariak** eskuratu zituzten Amelia Jauregi, Jesus Mari Jauregi eta Mikel Etxezarretaren gaztek.

10: **Manuel Barandiaran** ordiziarrek irabazi zuen Beasaingo Odolki lehiaketa.

11: **San Martin** eguna ospatu zuten Beasaingo Astigarreta auzoan.

9-11: **San Martin jaiak** ospatu ziren Ataunen.

9-11: **San Martin jaiak** ospatu ziren Araman.

17: **San Martin azoka** izan zen Zegaman. Urbia eta Aizkorriko gazta txapelketa Zeraingo Maria Anjeles Iñurategirik irabazi zuen.

19-25: **Mendi astea** ospatu zen Ormaiztegin.

19-25: Arabako Errioxako **ardo astea** ospatu zen Ordizian. Gazta txapelketa ere jokatu zen 24an, 'Txapeldunen txapeldun', lehenengo bi sariak hutsik gelditu ziren.

23: Beasainen **bi ertzaina** hil zituen ETAK, Zaldizurretako bidegurutzean trafikoa zuzentzen ari zirela. Hilketak salatzeke bilkura eta manifestazio ixil jendetsuak egin ziren.

24: Ormaiztegiko **Ander Deunaren jaiak** hasi ziren.

24: Urruñako eta Ziburuko **ikastolen alde**, Kepa Junkeraren kontzertua izan zen Ordizian, Beasain, Lazkao eta Ordiziako ikastolek antolatuta.



Lumagorri baserriko oilaskoen enpresak kontsumitzaileen saria jaso zuen, Carrefour merkatal-zentroaren ekimenez egin zen sariketan.



Goierriko 16 musika taldeen CDA kaleratu zen, 'Adierazteko gogoak' izenburupean.



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

© 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA



Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA

Tfnoa. eta Faxes: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



MAPFRE
ASEGURU TALDEA

'Eguberri zoriontsuak!'

Pello Barandiaran

© 943 16 13 61

**Jose Lasa, 3
LAZKAO**



N-1 errepidea, lurre auzoa
© 943 88 43 01 **OLABERRIA**

Igartubeiti baserri-museoa, Ezkio-Itsason

XVI. eta XVII. mendeetako Gipuzkoako baserriaren ereduak

Igartubeiti baserria, jatorriz, XVI. mendekoa da, baina jatorrizko baserri hartatik atal hauek iraun dute gaur arte: etxe barruko zurezko egitura (zutabeak eta lehengo fatxada nagusia) eta "habe luzeko dolarea". Lehenengo eraikin hura, izan ere, dena zurezkoa zen, baina txikiagoa oraingoa baino.

Agirietan azaltzen denez, XVII. mendeko lehen herenean, baserria handitu egin zuten, eta orduan eman zioten baserriari behin betiko irudia, gaur egun ikusten duguna, alegia. Handitu ere, lau aldeetatik handitu zuten: hiru aldetan harri-hormak altxatu zituzten, eta fatxada nagusia, berri, zurezko itxitura bat gehitu zioten ganbara aldean, eta haren azpian ezkaratza sortu zuten.

Beheko oina

Hiru sarrera ditu: bi, fatxada nagusiko ezkaratzean, hau da, XVI. mendeko zurezko itxiturean, eta horietatik ukuilura eta sukaldera sartzen da, eta beste bat atzeko fatxadan, ukuilura sartzeko.

Beheko oin honetan, bada, etxe zati hauek daude: sukaldea, ukuilua bere upategia eta guzti, eta gelak.

Sukaldeak lehego leku bera hartzen du XVI. mendeko geroztik. Sukalde erdian su-tondoa ikusten dugu, janariak prestatu eta etxeko guz-

Eraikina oraindik orain berri-tu dute, orduko handitze haren ondoko egoerara lehen-goratzeko asmoz, handitze lan hura izan baita baserrian orain arte egin den garrantzitsuena. Dena dela, nahiz eta obra hark baserriari erabateko aldaketa ekarri zion, batez ere bizitzeko tokia bera handitu zutelako, apenas izan zuen eraginik XVI. mendeko egitura jatorrizko hartan. Horregatik, gaur egun garai bakoitzeko eraikuntza era ezberdinak ikusteko aukera daukagu, baita etxe barruko zatien erabilerak nola aldatu diren antzemateko ere.

Bestalde, Igartubeitiko osagairik garrantzitsuenetako bat azpimarratu beharrekoa da dolarea ere berregin egin dugula. Dolareak bi arrazoi hauengatik dauka halako garrantzia: batetik, beraren arabera zirelako etxearen neurriak ere, hau da, bere neurrien arabera eraiki zelako baserria, eta bestetik, etxeko ekonomiaren ardatz bihurtu zelako, sagardogintzaren emaitzak salduz, alegia.

Halako "makinen" aztarnak Gipuzkoako baserri askotan aurkitu arren, orain bakarrik ikus daiteke lehenengo aldiz XVI. mendeko dolare bat guztiz osatua eta lanean.

XVI. mendeko dolarea



tiak haren inguruan biltzekoa. Hona hemen altzaririk azpimarragarrienak: kutxak, pertza laratzetik zintzilik, eta zizeilua, hau da, eserleku bizkar luzekoa, hotzetik babesteko. Erdian mahai mugikorra duena.

Horri dagokionez, XVII. mendean eraikitako harri-horman sartuta, agerian daude oraindik XVI. mendeko zizeiluaren aztarnak, eta gainera zurezko itxitura, kea ateratzeko zuloak eta guzti.

Interesgarriak dira, era berean, harri-horman sartuta dauden arasak, baxera gordetzekoak.

Sukaldeko atearen ondoan dolareko harria dago, kontrapisua egiten duena, eta harriaren gainean, berriz, ardatzaren oina, ardatzak gora jarraitzen baitu ganbararaino. Harriaren aurrez aurre, bestalde, ganbarara igotzeko eskailera dago. Osagai horiek guztiak XVI. mendeko eraikinenak dira, gero XVII.

mendean handitu arren zeuden-zeudenean gelditu zirenak, alegia.

Ukuilua, berriz, bi alderdi nagusi ditu: ganaduarena eta biltegiarena. Lehenengoa sukaldearen atzealdean bertan dago, eta hor bertan daude behientzako ganbelak ere. Alderdi hori sukaldearekin lotuta dago bi leihoren bitartez, alde batera irristaraziz zabaltzen baitira. Atzerago ardi azienda egoten zen. Gainerako lekua sagardo upelak



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua eta karta.

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

edukitzeko izaten zen eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako lanabesik handienak gordetzeko (gurdia, goldea, etab.). Behientzako alderdiaren sabaian, berriz, garbi ikus daiteke zurezko habe puska pilo bat errenkan jarrita, dolare-askari eusteko.

Sukaldetik joaten da XVI. mendean zegoen **logela** bakarrra. Han ondo ikusten dugu pareta guztiak zurezkoak direla, izan ere, baserria XVII. mendean handitu zutenean, orduan gehitu baitzizkioetna benetako logelak, hiru zehazki, bata bestetik bananduta. Lehenengo logela, berriz, ez zuten gehiago erabili.

Altzari gutxi daude: logela bakoitzeko kutxa bana eta bina ohe bakarrik.

Ganbara

Ganbarara igotzeko, sukaldetan hasten den eskailera hartu behar da. Batez ere janariak biltzeko eta sagardogintzan jarduteko zen ganbara.

Erdi-erdian dago baserriaren atalik funtsezkoena: **habe luzeko dolarea**. Osagai hauek ditu: pats-aska (4 metro luze eta 3 zabal), jotako sagarra bertara botatzeko; gainean habe luzea duka, 10 metro-



koa; eta habearen mutur batean ardatza ikusten dugu, zorua zeharkatu eta sukaldetako harriraino iristen dena.

Dolarea urtean behin bakarrik erabiltzen zuten sagardoa egiteko, baina tramankulu horek markatzen ditu erabiltzen duten sagardoa egiteko, baina tramankulu horrek markatzen ditu baserriaren ezaugarriak. Izan ere, bere

Bisita orduak

Asteazken eta ostiraletan, goizean bakarrik, 10:00etatik 14:30era.

Larunbat, igande eta jaiegunean, goizean 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara.

neurrien arabera, eta bere tamainagatik daude halako egur puskak, pieza bakarrek zutabeak, hain habe lodiak, eta abar, pisuari eusteagatik, hain zuzen ere.

Askaren inguruko alderdiak, berriz, erabilera hauetarako dira: janariak biltzeko, gaudarentzako belarra ontzeko, baita babak eta txerria hil ondoren landutako jakiak on-

tzeko ere, eta lanabes txikiak nahi erdikoak edukitzeko.

Ardatzaren ondoan dagoen pareta, bestalde, XVI. mendeko fatxada bera da, baina ez dago osorik, izan ere XVII. mendean baserria handitzearekin batera ateak ireki baitzizkieten ezkaratzaren gainean zabaldutako esparru horrek zati asko ditu: artoa ontzekoa, alergietan garia biltzekoa, aroztegia, erletegia eta usategia.

Egitura

Baserriak oraindik gordetzen ditu jatorrizko egituraren xehetasun garrantzitsu batzuk, baina denboraren joanean haietako batzuk galdu edo aldatu egin dira.

Hona hemen azpimarra-garrinak: pieza bakarrek zutabeak, lurretik teilaturaino iristen direnak; erdiko zutabe bikoitzak, bien erdian dolareko habea ezartzekoak; dolarearen egitura ikusgarria bera: habe luzea, ardatza, urkatxoa, harria, aska eta azpiko habe puska pilo errenkan; zurezko paretak; teilatuko gapirioak; pieza bakarrek XVI. mendekoak, eta laburragoak XVII.ekoak; eta zoruak.

PEAGE

ZURE BAKERO DENDA

Levi's

Bonaventure

Replay

Guess

Liberto

Nagusia, 42 BEASAIN

Korreo, 25 TOLOSA

Emeterio Arrese, 25 TOLOSA

Garibai, 6 DONOSTIA

URBIL merkatal zentrua

A HOLKULARITZA

GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

Eguberri
zoriontsuak denoi !

☎ 943 16 00 65 Faxa: 943 16 03 59
J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

Jonjo kafeak: Kafe txigortu berria

Ordiziako Santa Maria kalean, Jonjo kafeak denda ireki berria dute. Kafe etxea da. Mundu osoko kafe ezberdinak saltzen dira, bertan txigortuak. Kafea dastatzeko aukera ere badago. Te ezberdinak ere bai. Juan Jesus Benito da dendaren arduraduna.

Denda berezia ireki dute Ordizian: Jonjo kafeak. Kafearen etxea dela esan daiteke. Kafe berdea ekarri eta egunero, beharraren arabera txigortzen dute. Kafe txigortu berria erosteko aukera ematen du Juan Jesus Benitok. 7 kafe ezberdin saltzen ditu, munduko herrialde ezberdinetakoak: Kolonia (deskafeinatua ere bai), Brasil, Etiopia, Kenia, Costa Rica Tarrazo eta Jonjo kafea, seien nahasketa.

Kafea txigortzeko makina bertan dago. Datozen eguntan handiagoa ekartzeko asmoa du. Kafe txigortu berria-



ren garrantzia handia da kafezaleentzat, Juan Jesusek adierazi digunez: *"Txigortu berriak propietate eta sustantzia guztiak berekin ditu. 11 egunera hasten da galtzen. Kafezaleak nabaritzen du alde. Jendea probatzen ari da eta gustura dago. Zapore gehiagoko kafea da"*.

Kafe txigortu berria erostez gain, kafea dastatzeko aukera ere badago. Kafe makina berezia daukate; momentuan, behar adina kafe txigortzen du. Astero kafe ezberdina jartzen dute dastatzeko,

bezeroak ezberdintasunak ikasten joan daitezten.

Te eta infusioetan ere aukera zabala dago. 13 te ezberdin erosi eta dastatu daitezke. Azkenik, te eta kafe osagaiak saltzeko ere badituzte.

Herriko festetan sortutako ideia da kafe etxearena. Donostian eta Oñatin badaude horrelako kafe dendak, baina hemen berria da. Jendeak hasieran ez zekien oso ondo zer zen denda, eta denetik entzun behar izan dute dendan. Kalimotxoa ere eskatu diote.

Kafe bakoitzari berea

Kafearen mundua oso zabala da, baina aldi berean, gehienontzat behintzat, ia erabat ezezaguna. Ardoarekin konparaketa egin dигute, ideia bat har dezagun eta zein kafe erosi jakin dezagun:

Kolonia eta Brasilgo kafea, 'korrikalariak' deitzen zaie, urteko ardoa izango litzateke.

Costa Rica, Kenia, eta Etiopiakoei gourmet deitzen zaie, erreserba litzateke.

Zaporean eta kafeina kopuruan dute ezberdintasunik handiena. Kafe bakoitzak bere zaporea du, herrialdearen arabera ezberdina. Kafeinaren kantitatea ere ezberdina da. Zenbat eta kafe garestia, orduan eta kafeina gutxiago.

Denden ordutegia du Jonjo kafeak: goizeko 8,30etatik 1era eta arratsaldeko 3,30etatik 8etara.

Eguberri on!

X kel

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06 - 619 770 600 **ORDIZIA**

Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

Jai zoriontsuak!
**RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK**

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

KEMEN KIROLAK

Zumalakartegi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

INPRIMATEGIA
URDANETA

**KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ**
Gaben zoriontsuak!

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 **ORDIZIA**



Soldadura robota



GOIERRI
LANBIDE ESKOLA

☎ 943 880 062

☎ 943 880 066

Faxa. 943 888 351

ORDIZIA

E-mail: bulegoa@goierrieskola.org



ERAIKUNTZA METALIKOAK
GOIERRI LANBIDE ESKOLA




*Goierri Lanbide Eskolako
Eraikuntza Metalikoen sailak
eguberri zorionsuak opa dizkizu.*

*2002 urte berrian ere zure
esanetara izango gaituzu.*



IRUNE MUJIKA

**OPARIAK - HALTZARIAK - ERRETRATOAK
KUADROAK - ESKUDO HERALDIKOAK
EZKONTZA GONBIDAPENAK
DISEINU GRAFIKOA
(Logotipoak, foiletoak, kartelak.....)**



TEL: 943 88 53 02

GARAGARZA PLAZA 3

ORDIZIA



Ludoteka, ia urte betez martxan

Urtarrilaren 15ean jarri zuten martxan ludoteka Olaberrin, lurre auzoan, ekonomato zaharrean. Maixa Nazabal da ludotekaren arduraduna. As-telehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 6,30etara, 4 urtetik 9 urte bitartekoak izaten dira ludotekan. 6,30etatik 8etara, 10 eta 16 urte bitartekoak. Larunbatetan, goizez egoten da irekita ludoteka, 11etatik 1era eta guztiak elkarrekin egoten dira.

Txoko ezberdinetan daukate antolatua ludoteka. Liburutegia eta bideo txokoa, mahai jolasak, eskulanak, kirol edo mugimendurako tapi-za, antzerki eta mozerro txo-

koa, eraikuntzako eta puzzle txokoa, sukaldea ere osatzen ari dira.

55 bat haur eta gaztetxo ibiltzen dira gutxi gora-behera. Besteak beste, euskara bultzatu nahi duen ludoteka da. *"Txikienek euskara polita dute baina behin 10 urtez gero Beasaina joaten direnean, euskararekin arazo handiak dituzte. Ez dute euskaraz hitz egiteko ohiturarik"*.

Gabonak

Gabonak gainean ditugu eta etxeko txikienek oporrak ere bai. Ordutegi berezia izango du ludotekak eta goizez egongo da irekita, 26, 27, 28, 2, 3



eta 4an, 10,30etatik aurrera.

Abenduaren 21ean eta 22an, gurasoei irekiko dizkiete ludotekako ateak, urtean zehar egindako eskulanak ikus ditzaten eta eurekin jolas dezaten. Hurrengo urterako, ateak irekitzearen ekimen hau hilean behin egiteko asmoa dute ludotekako arduradunek. Aurten behin bakarrik egin dute.

Olentzeroren inguruan ere egingo dituzte ekitaldiak.

Kantu berezi samarrak ikasten ari direla aurreratu digu Maixa Nazabalek.

Hurrengo urteari begira ere, Interneteko gela berriz ere martxan jartzea dute asmoa.

Birziklatzeari garrantzia

Material ezberdinak aprobetxatzen dituzte ludotekan. Materialei erabilera ezberdina ematen diote, birziklatzearen gaian kontzientziazteko helburuarekin.



Polígonoa 201 - Tfnoak: (943) 88 09 79 - 88 80 89 - Fax: (943) 88 80 89 - OLABERRIA (Gipuzkoa)



Oroith abesbatza: urrezko domina

Kantuak eman digu oraingoa pozik egoteko motiboa. Avilesa hurbildu, behar beste kantu abestu eta buelta etxera, lehen saria eskuan. Bai, horrela gertatu zen baina ez pentsa litekeen bezain erraz. Oroith abesbatza Asturiasa joan bai, baita kantatu ere, baina ez nolanahi. Sekulako maila erakutsi zuten oraingoa abesbatzakoek, aurkariak ez baitzien nolanahikoak. Oroithekoek beraiek azaldu dutenaren arabera *"Avileseko jaialdian parte hartu zuten abesbatzek maila ona erakutsi zuten, batez ere Kuba, Leioa eta durangarrek, baina gu ere ez ginen makal ibili"*. Hainbeste urtetako entseguen ondoren merezita zuten hone-lako saria.

Kalitatearen diploma Jakintzari

Jakintza Ikastolak jaso berri du saria ere. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako ikastetxeen artean 26 diploma banatu eta horietako bat Jakintzarentzat izan da. Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Euskalit erakundeak ematen du kalitatea errekonozitzen duen saria eta

behin diploma lortu eta gero zilarrezko eta urrezko Q dira errekonozimendurik gorenak.

Tomas Deuna

Eguna pasata izango bada ere, larunbata aprobetxatu nahian, txorixo, ogia, ardoa, gaztaina, haur jolas, talo eta abarrez gozatzeko aukera izango da Plaza Nagusian. Bai, Plazan izango da bertako lanak amaituta izango baitira eta ingurukoak geldirik. Beraz, txistulari, trikitilari eta bertsolariez inguratuta Tomas Deuna eguna ospatzeko aukera ona duzue.

Olentzeroren bisita

Urteroko hitzordua izango dugu Euskal Herriko pertsonaia maitatu honekin ere. Ikazkin lanak alde batera utzi eta haurrak poztera etorriko da aurtengoan ere Ordiziara. Arratsaldeko 6etatik aurrera egingo digu bisita herri gunean ibilbidea burutu ondoren Plaza Nagusian izango du amaia. Tarte hori izango dira trikitilari, kantari eta dantzariak.

Aparteko peria

Hainbat postu lekuz aldatuta egongo badira ere, urteari amaiera emango dion Eguberrietako peri berezia izango da abenduaren 26an. Ohi bezala kapoi, antzar eta indio-larren erakusketa izango da Beti Alai pilotalekuan, asteazkeneko barazki eta fruitu postuak Garagartza Plazan izango dira, Urdaneta Kalean jartzen ziren artisauak Plaza Nagusi inguruan izango dute kabida eta hauekin batera errezil-sagar, fruitu eta fruitu lehorren erakusketa izango da bertan. Lekurik izango ez duena ahari eta ardi erakusketa izango da. Estaligabeko pilotalekuan orein, pottoka, ostruka eta basurdekumeak ipiniko dituzte.

Silbestre Deuna

Lasterketa herrikoia izango da aurtengoan ere eta gazte-txoenek euren dohainak erakutsi ondoren larrienen txanda izango da arratsaldeko 6,30etatik aurrera. 300 parte-hartzaile inguru izan ziren iazkoan eta aurtun ere hau errepikatuko delakoan daude antolatzaileak. Ibilbideak, herriko lanak direla eta, aldaketatxo batzuk izango ditu aurtengoan ere.

Erregeen kabalgata

Olentzerok bere bisita eginda Ekialdeko hiru erregeei iritsiko zaie txanda urtarilaren 5ean. 19:00etan Bustuntza auzotik abiatu eta Plaza Nagusian izango du amaiera.

Baita gehiago ere

Kontuan izan behar da baita ere bi aste luze hauetan hainbat ekintza gehiago ere izango direla. Arrate Leunda, Patxi Hernando eta Pello Añorga ipuin kontalariek euren saioak izango dituzte, Barrena kultur etxean AEK-k antolatutako postal lehiaketako lanak eta Luis M^a Lainsa Arnaiz argazkigilearen "Ordiziako euskal jaiak" izeneko erakusketa ikusgai izango dira, abesbatzen saioak, Eguberrietako kantak, haurrentzako parkea... Esan bezala, ez aspertzeko moduko egitaraua.

Kontseiluari lagunduz

"Azken pezeta eta liberak, lehen euroak" lelopean diru bilketa kanpaina martxan jarri berri du Kontseiluak. Herriko hainbat taberna eta dendatan itsulapikoak egongo dira jarrita eta bertan borondatea uztea besterik ez duzue.

Aitor Calvillo

LABURREAN

Erramun Martikorena

Atera berri du Iparraldeko kantariak "kantuz sortu naiz eta..." bere azken diska eta abenduaren 21ean egingo du aurkezpena. Pascal Gaigne gitarraz eta Karlos Gimenez pianoz lagun dituela egingo du saioa gaueko 22:30etik aurrera Herri Antzokian.

Takolo, Pirritx eta Porrotx

Haurtxoentzako ikuskizun paregabea 30erako. Pailazo ezagunek "aupa kintxo" saioa eskainiko dute Majori Kiroldagian. Sarrerak aurretik izango dira salgai Barrena Kultur Etxean.

Igeriketa proba

Eguberriko Foru Aldundia Nazioarteko XIX. sari nagusia, Ordizia 2001 proba ere jokatu da abenduaren 29an. Ohi bezala Majori kiroldegiko igerileku estalian jokatu da proba. Arratsaldeko 4,30tik aurrera izango da.



Tere Arruabarrena margolariaren artelanak

Azkenaldi honetan ohituta gaude Tere Arruabarrena herritarraren artelanak nonahi ikustez. Oraingo honetan Donostiako "La Colchoneria" taberna galerian daude ikusgai Tereren oleoz eta espatulaz egindako lanak. Aipatutako erakustokia Donostiako San Bizente kaleko 9. zenbakian dago eta abenduaren 1etik 31ra bitartean egongo dira ikusgai herriko artistaren lanak. Zorrikerik onena eta segi aurrera.

Santa Lutzia omenduz

Santa Lutzia jostunen eguna da eta aitzakia hori hartuta, dagoeneko ohitura bihurtzen ari da herriko emakume talde batek afaria egitea Santa Lutzia-aren omenez. Aurtengoan abenduaren 15ean, larunbatean elkartu ziren, herriko Ostatuan.

Medailatxoak aurkitu da

Lepokoren batetik galdutako medailatxo bat aurkitu da Mutilotik Segurara bitarteko bidean. Txindoki mendia-aren irudia eta bertan izena eta data inskribaturik ditu. Galdu duenak Mutiloko Udaletxean aurkituko du 943-800450 telefonoan.



Herri inguruko obrak

Abenduaren hasierarekin batera hasi dira herri inguruan hainbat obra:

- Gurruntzain frontoiaren aldamenean, bolatokiaren parean haurrentzako jolastoki eder bat egingo da.
- Presaren ondoan berriz, mokadutxo goxoak egiteko aisialdi gunea antolatuko da, bertan mahaiak, iturria eta burrunzia jarriko dira.
- Eta azkenik, autobus geltokia egiten hasi dira Urbieta etxearen aurrean Udalak dituen lurretan.

Iñaki Ugalde



Gabon jaiak

Urte amaiera eta Gabonak, beren inguruan izan ohi dituzte oporrak eta festa giro bereziak, egun hauek gozatu eta ondo pasatzeko hainbat ekitaldi prestatu dira aurrean ere.

Gabon eguna

Gure herrian bereziki Gabon eguna ospatzen da eta egun horretan aurrean ere ohi bezala etxez etxe kantari ibiliko

da herriko haur, gazte eta helduz osatutako taldea.

Iluntzean, Olentzeroren etorrera izango da, kantuz eta soinuz egingo zaio ongi etorria eta Olentzerok gaitain erreak eta ardoa banatuko dizkie bertara hurbiltzen direnei, eta opariak txikienei.

Txangoa

Hilaren 27rako egunpasa bat antolatu du Kultur-etxeak, goizean Txillida-leku ikusi eta arratsaldean Baionara, Euskal Museoa bisitatu eta hiri polit hau ezagutzera.

Bolatea

Abenduan zehar bi bola txapelketa antolatu dira, Liztormendi txapelketa hilaren 9an jokatu zen eta bertan Xefirino Agirre segurarra izan zen irabazle. Gabon txapelketa berriz hilaren 23an jokatu da, Liztormendi bolalekuan.

Mari Flor Mendizabal

Abenduaren 22an, Herri Antzokian

Eate abesbatza

Datorren abenduaren 22an, larunbata, Eate abesbatzak kantaldia eskainiko du Herri Antzokian, iluntzeko 8,45etan.

Egun horretan eskainiko diguten egitarauan ez da faltako Eguberri giroko kantarik, izan ere ordurako jada egun horietan sartzeaz izango baikara. Hona hemen, eskainiko dizkiguten abestien egitaraua:

“Binbili Bonbolo”, “Ansorenaren Agurra”, gure artean klasikoak diren “Itsasoa laino dago” eta “Maitia nun ziran”, Lesbordes eta A. Mixelenarenak hurrenez hurren,

E. Mocoroaren “Ilunabarra”, “Jeiki jeiki” Lesbordesena eta guztiontzat hain ezagun diren “Haurtxo maitete”, “Atozte kristauak”, “Gabor Gaba”, “Elurra mara-mara”, “Hator, Hator” eta “Olentzero”.

Iluntze atsegin bat pasatzeko moduko aukera eskaintzeaz gain, herrikoa izateak arrazoi nahiko izan beharko luke guretzat bertaratzeko eta, abesbatza gazte honen ahots gozoez gozatuz gure babesa eta eskerrona azaltzeko.

Agurtzane Bikuña

Labur-labur

- Joan den hilean hil ziren Anita Dorronsoro Esnaola, nahiz eta azken urteotan Beasainen bizi, hainbat urtez Gabilenen sukaldari egona. Eta Juli Galparsoro Zeberio ere. Doluminak sendiei.

Garai bateko gauzen katalogoa

Garai bateko tresna, altzari, dokumentuen... katalogoa egiteko asmoa jakinarazi berri zaigu Udaleko Kultur Batzorde-tik. Ekimen hau 2002.urteko urtariletik ekainera bitartean gauzatuko da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Aranzadi Zientzi Elkartearen babesean sortu den egitasmo hau, etnologia arloko “Zaharkinak” programaren barnean egingo da. Ez da antzeko ekintza bat antolatzen den lehen aldia. Beste herri batzuetan ere eginga baitute horrelakorik. Izan ere, zenbatetan ez diogu bati edo besteari entzun esaten “baserriñ genduzken “traste zar hak jaso bagiñuzen... oain, oain bai apreziatuko giñuzela...”. Horixe da bilketa honen helburua. Lehen gutxietsi genituen tresna, altzari, lanabes... horiei merezi duten balioa ematea. Izan ere, horiexek dira ordenadore eta teknologiaz beteriko gizarte aldakor honetan, gure arbasoekiko gelditzen zaizkigun lotura bakanak. Eta zer ho-beagorik gure ondorengoei gure sustraian berri emateko?

Asmo hau aurrera eramateko, nahitaezkoa da herritarren eta, bereziki baserritarren laguntza eta konfiantza. Egitasmo honetan parte hartzeko erabakia hartu duzuenok, zuen ize-na, helbidea eta telefono zenbakia jarritz bete duzuen fitxa, datorren ostirala, abenduak 15a baino lehen entregatzea komeni da Udaletxean. Urtariletik aurrera norbait joango da zuen etxetara, erakusgai duzuen ikusi eta katalogatzeko. Ondoren ekainetik uztailean bitartean, Udal Kiroldegian erakusketa antolatzeko asmoa dago interesgarrien jo diren piezekin. Dударik ez da, erakusketa bukatu ostean berriro itzuliko zaizkizuela zuen piezak.

Bide batez, eta tamainako eginkizunak duen lana kontutan izanik, boluntarioei deialdia egiten zaie. Horrelako ekimen batek guztion partaidetza eskatzen baitu.

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

Eguberri zoriontsuak denoi!

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Eguberri zoriontsuak denoi!

Oiarbide

Oinetakoak

San Inazio, 14
943160434
BEASAIN

Laskurain, 12
943653786
TOLOSA



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Etxebizitzak salgai

Bukatzeria doana, herrian azken hamarkadetan, etxebizitza gehien egin edo egiten hasi diren urtea izan da. Azken hamabost urteetan, Idiazabalen urtero 17 etxebizitza berri egin dira. Azken bi urteetan, zenbaki hori hirukoiztu egin da.

Etxebizitza berrien gorakada iaztik dator, eta udalak eskuartean dituen datuen arabera, datorren urtean berriro ere beheranzko joera hasiko da. Oraingoan, 2002. urtean eraikin berriak egiteko baimenik ez dute eman eta etxeak egiteko gordetako lur sail gehienak beteta daude dagoneko.

2001. urtean, 76 etxebizitza hasi dira egiten, gehienak bukatu gabe daude, horietatik 43 pisuak dira eta 33 adosatu eta bi familiarentzako etxe bakarrak. Horietako asko egiteko baimenak aurreko urteetan eman zituen Udalak, baina

aurten hasi dira eraikitzen.

Egiten ari diren 43 pisuetatik, 24 udalak bultzatutakoak dira, gainerakoak ekimen pribatuarenak. Pisuen %70 Kiroldegi ondoko zelaian egongo dira. Izan ere, etxebizitza berri gehien Adarra auzoan ari dira egiten. Horiei, aurreko urtean eraikitzen hasitako beste 28 pisu gehitu behar zaizkie (Adarran, Zepai atzean 16 -bukatuta- eta Zigorren, Igarondo aldera 12 -bukatzear-).

Etxea erosteko aukera zabalago dago Idiazabalen, pisuek gain, adosatuak edo bi familiarentzako etxe bakarra aukeratu baitaitezke. Une honetan 30 adosatu ari dira egiten, 18 Adarran eta 12 Zigorren. Bi familiarentzako hiru etxe egiteko lanak ere hasita daude Zigor auzoan, Udalak egindako apartamentuen atzeko zelaian.



Arg.: Unai Azurmendi

Errealaren lagunak

"Idiazabalgo Errealaren lagunak" taldeak, azaroaren 24an egin zuen urteroko afaria. Afarira Lopez Rekarte, De Paula eta Aranzabal, Errealeko jokalaria gonbidatu zituzten. Afal ostean, Aitor Lopez Rekarteri jokalaria onenaren saria eman zioten. Martín San Pedro, herritarrek berriz Idiazabal K.E. ko jubenil mailako jokalaria onenaren saria jaso zuen.

Gabonetarako agenda

Datozen egunetarako, gabon kutsuko eta bestelako ekitaldiak daude antolatuta.

Abenduak 24, astelehena, goizean Herri Eskolako neska-mutikoak, kalez kale ibiliko dira kantuan. Arratsaldeko 6etan, herriko abesbatza eta txistulari taldearen ohiko kontzertua izango da.

Abenduak 28, ostirala, Taupada taldeak "Printze Txikia" lana eskainiko du Guraso Elkartean arratsaldeko 5,30etan.

Urtarrilak 1, urte berri eguna, iluntzean, urteroko moduan ardoa banatuko da plazako arkupean. Estreinakoz, Idiazabalen ere euroak erabiltzen hasteko eguna izango da.

Azken hamarkadan Udalak etxebizitzak egiteko emandako baimenek gora egin dute:

1990	0 baimen
1991	17 baimen
1994	9 baimen
1999	17 baimen
2000	56 baimen
2001	56 baimen

Azkeneko hamarkadan, gora egin du mota honetako eraikin kopuruak. 1990az geroztik, 14 txalet, bi familiarentzako 4 etxe, 4 adosatu eta bizitza bakarreko etxe bat eraiki dituzte Idiazabalen.

Xabier Urteaga



AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurrre lantegialdea, 10

943 88 05 65 OLABERRIA

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

Kilometroak 2001 antolatzen lagundu zutenen afaria

Abenduaren 21ean, Beasaingo Ikastolan

Abenduaren 21ean, gaueko 9etan, Andramendi, Beasaingo Ikastolan, Kilometroak 2001 jaia antolatzen lagundu zutenentzat afaria prestatuko dute Beasaingo Ikastolakoek. Deia zabala da; era bateko edo besteko lana egin dute nentzat. Txosnan, arropak saltzen, garbiketari, antolaketan, trafikokan, muntaian... lan egin zuten guztiak gonbidatu nahi dituzte, guztiei esker egun arrakastatsua izatea posible izan baitzen. Beasaingo Ikastolakoek adierazi digute-

nez, ehunka lagunei esker darrari aurrera Andramendi, Beasaingo Ikastolak.

Izena aurrez

Beasaingo Ikastolan bertan eman behar da izena, afarira joan nahi dutenek. Goizeko 11etatik 12etara eta arratsaldeko 4,30etatik 5,30etara, 943-889617 telefono zenbakira deitu eta, izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa utzi besterik ez da egin behar.

Olentzeroren bisita

Abenduaren 24an, gabon kantuak eta Olentzero izango dira protagonista nagusiak. Goizean ikastetxeetako ikasle-irakasleentzako txanda izango da. Arratsalde partean, berriz, 6ak aldera, Igartzeta jauregitik abiatuko dira talde guztiak elkarrekin kantuan, Olentzero lagun dutela. Nafarroa etorbidea, Erauskin plaza, Zubimuzu plaza, Bideluze plaza, J. M. Iturrioz kalean buelta eta Loinazko San Martin plazaraino izango da Olentzeroren ibilbidea.

Lau karroza izaten dira ibilbidean zehar, Euskal Herriaren izairan oinarrituak guztiak. Loinatz abesbatza, bertsolariak, dantzariak, txalapartariak... denetik izango da. Iluntzeko 8ak aldean, Loinaz San Martin plazan amaituko da kantu eskea.

Hego Amerikako jaiotzen erakusketa

Abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra arte Hego Amerikako jaiotzen erakusketa izango da Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan. OCSI Gobernuz Kanpoko erakundeak Udaleko Gizarte Ongizate Sailarekin batera antolatutako erakusketa da. Mexiko, El Salvador, Honduras, Txile edo Guatemalan Jesukristoren jaiotza nola ikusten duten ezagutzeko aukera dago.



Gozategi taldea, abenduaren 21ean

Abenduaren 21ean, gaueko 10,15etan, Usurbe Antzokian, Gozategi musika taldearen kontzertua izango da. 'Egunon' disko berria aurkeztuko du Orioko taldeak. Laugarren lana dute 'Egunon'. Sarrerak 800 pezetan erosi ahal izango dira.

Gabonetako oratorioa

Abenduaren 23an, Andre Mari Zeruratuaren parrokiari, Juan Sebastian Bachen gabonetako oratorioa entzuteko aukera izango da, Loinatz abesbatzaren eta Donostiako Talde Barrokoaren eskutik. Musika erlijiosoaren barruan klasiko bat da Gabonetako oratorioa.

Musika emanaldi hau prestatzen lau hilabete daramatzate. Harizko instrumentu sail osoak, oboeak eta flautak osatzen dute orkestra. Kantatu berriz, lau bakarlarik kantatzen dute: Arantxa Etxabe sopranoa, David Azurza altuak, Jon Etxabe tenoreak eta Jesus G. Arejula baxuak. Organoa nagusi izango da.

Juan Sebastian Bach musikariak gabonetako egun bakoitzean kantatzeko pieza bana osatu zuen; 6 guztira. Abenduaren 23an, 3 entzun ahal izango dira. Ordu eta erdiko iraupea izango du emanaldia.

Euskal liburu eta disko azoka

Data hauetan ohi bezala, abenduaren 24ra bitartean, Goiztiri AEK euskaltegiak antolaturik, euskal liburu, disko, bideo eta joko azoka izango da. Kale Nagusiko 28. zenbakian kokatuko da. Egunero egongo da irekita, arratsaldeko 5etatik 8etara. Astearte eta larunbatetan, goizez ere bai, 10etatik 1era.

'Euskal irudigileen aretoa'

Urtarrilaren 6ra bitartean, 'Euskal irudigileen aretoa' erakusketa dago ikusgai Bibliotekan. Asun Baltzola, Elena Odriozola, Mikel Valverde, Montxo... irudigileen lanak ikusteko aukera izango da. Beasaingo ikasleak txanda pasatuko dira Bibliotekatik. Tailerrak ere izango dira. Mikel Valverderen komikiak 'Gara' egunkariak igandeetan argitaratzen duen 'Zazpika' astekarian ikus daitezke. Bernardo Atxagaren 'Banbulo' liburuan ere irudiak egindakoa da.

Udala eta Foru Aldundiaren arteko hitzarmena

Joakin Villa, Presidentziako Foru Diputatuak eta Juan Inazio Galdos, Zegamako alkateak, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Zegamako Udaletxean. Hitzarmen horren bidez, herritarrek bi administrazio hauetako edozein agiri erregistrotara zuzendutako eskari, idatzi eta jakinerazpenak aurkezteko modua izango dute.

Hitzarmen honen hurrengo garapenak Aldundira zuzendutako idazkiak Udale-

txeko Erregistroan aurkezteko aukera emango die Zegamako herritarrei, epeak betetzerakoan erabateko balioz eta Donostiaraino joan beharrik gabe. Era berean, Udaletxera zuzendutako jakinerazpena Foru Erakundearen Erregistro Zentralean edo sailleko edozein erregistroan aurkezteko aukera izango da. Edozein motatako agiriak onartuko dira, kontratazioekin erlazionatutakoak izan ezik.



Zegamak Aldundiarekin modu honetako hitzarmena sinatzearen helburua honako hau da: administrazio publikoak herritarrengana hurbiltzea eta erakundearen arteko harremanak arintzea izapideak egiteko, errazteko.

Lankidetzaren eredu honek aurrera pausu handia ekarriko

du komunikaziorako bide bat gehitzen baitu. Sistemaren eraginkortasuna bermatzeko aldera, hitzarmena sinatu duten bi administrazioak aurkeztutako dizkietan agiriak lehenbailehen eta modu egokiarekin bidaltzeko konpromisoa hartu dute.

'Zaharkinak' txostena

Udaberrian Zegaman egin genuen Zaharkinak erakusketan erraldoiari buruz Fermin Leizaola, bertan bildutako tresneriari buruzko txosten xehetu bat utzi du Zegamako Udaletxean, honetara enkargatuta. Hala ere, herriko zenbait gazte ere, baserriko tresneria bilatu, argazkia atera eta fitxak bete, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, errekonozimendu modura hainbat liburu bidali ditu hauentzat, txostenaren aurkezpenean eman asmoz.

Txostenaren aurkezpenean, abenduaren 19an, iluntzeko 7etan izango da Udaletxean.

Olentzerorekin irteerak

Abenduaren 24an, goizeko 9etan, Aitzuri Herri Eskolako ikasleak eskean irtengo dira Eskolaurrekoekin irteera ordua goizeko 11etan dutelarik.

Arratsaldeko 2,30etan, berriz, baserrietarako irteera egingo da Kultur Etxeak deiturik eta 18:00etan, baserrietara joan direnak, herri gunera etorri eta gero herrian zehar ibiliko gara eskean.

Ipuin kontalaria

Abenduaren 27a, arratsaldeko 4etan Ipuin kontalaria izango dugu Udal Liburutegian. Lehen saio honetan 3-4 urteko haurrak hartuko ditu eta ondoren, 16:30ak aldera, 5etik 9 urte bitarteko haurrentzat izango da saioa.

Idoia Zubizarreta ipuin kontalaria izango da gure artean. Aipatu, ipuin kontalaria hau, Zegamako Udalak Eusko Jaurlaritzak egiten duen "irakurzaletasuna suspertzeko programaren barnean" ekarriko duela, horretarako dirulaguntza jaso duelarik Udalak.

Urte Zahar gava herrian

Azken urteotako joerari eutsiz, Urte Zahar gava, herrian bertan pasatzeko gonbitea luzatu zaigu Kultur Etxetik.

Erregeen kabalgata

Tobera Musika Eskolak antolatutako, urtarilaren 5ean Erregeen Kabalgata izango dugu ilunabarrearekin batera. Antortza eramanez parte hartu nahi duenak, jo beza Tobera Musika Eskolara.

Eduarne Albizu

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINIA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behe ez. - BEASAIN



BIÑASPRE

LURRINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA

Opariak
Gabonak 2001

K. Nagusia, 8

☎ 943 88 13 37

ORDIZIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK



Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



MUNDUATE

ERLOJUTEGIA

BITXITEGIA

OPARIAK

*Eguberri zoriontsuak pasa
ditzazuela*

Erregeak arte
larunbat arratsaldeetan
zabalik

1883 URTEAN SORTUTAKO ETXEA

☎ 943 88 12 72

Kale Nagusia, 1-2

ORDIZIA



Boni-etxe

igeltseritza orokorra



☎ 616 921 502 ☎

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN

orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxa: (943) 88 73 08

Gabon egitaraua

● **Olentzero eguneko argazkien erakusketa.** Elorripen 1969tik 1985 arteko gabon bezperako eskeetako argazkiak daude ikusgai.

● **Anda eta kantu emanaldia.** Abenduaren 23ko meza nagusiaren ondoren, plazan. Neska-mutikoei taldeka parte hartuko dute. Ondoren elizako koruak gabon kantak abestuko ditu.

Pala goma txapelketa

Segurako Kirol Elkartek 16 urtetik gorakoentzat bikotekako pala goma txapelketa antolatu du. Partiduak 30 tantotara jokatu dira jai goizetan. Izen ematea (2.000 pezeta) tabernetan dauden orrietan egin behar da urte amaierarako. Herrian azkena antolatu zen pala goma txapelketa 1983ko maiatzean izan zen. Finalean Sebastian eta Ximon Garaialde anaiek Joan Mari Oiarbide eta Julian Arrondori irabazi zieten.

Mendiko txartela

Mendiko federatu txartela berritzeko, mendi elkarteak norbaitengana jo edota Txetxu Ormazabalengana.

● **Olentzero eskolara.** Abenduaren 21ean beheko eskolara etorriko da Olentzero, bertako haurren galderak erantzun, intxaurrak banatu eta gutunak jasotzeko. Bestalde, Laiotz Herri Eskolakoek bi Olentzero panpin prestatu dituzte Europistasek nahiz Carrefourrek antolatzen dituzten txapelketetarako. Gabon kantu eta dantza entsaioetan ere ari dira abenduaren 23ko zein 24ko ekitaldietarako.

● **Olentzeroren etorrera Lastala aldetik.** (Elorri Kultur Elkartek udalaren laguntzaz antolaturik). Lastala baserrian arratsaldeko 6etan piztuko den suak eta txalapartak egingo diote harrera Olentzerori. Bertatik, antortza eramaleak lagun dituela Madalenara jaitsiko da oinez. Mendotzeko traktoreak eramango duen karrozara igota, txistulari, artzain eta antortza eramale gehiagorekin herri-rantz abiatuko da errebaletik. 18:30ean Jermanenen herriko koruak egingo dio harrera. Herriko kaleak zeharkatuta, plazan egingo den ekitaldiarekin (txalaparta, dantza, musika, kantuak...) amaituko du ibilbidea. Ondoren, Olentzero hurrekin arituko da sola-



1984an gabon bezperan kantura atera zen koadrila bat.

sean plazan. Ibilbidean ospitaleko bisita egin eta opariak eramango dizkie eta plazako ekitaldiaren amaieran komentuko ere bai. Amaitzeko, plazan erretako gaztainak, intxaurrak, gaztaia eta ardoa bertaratzen direnentzat. Antolatzaileek baserriar jantzita ateratzeko gonbitea egingen diete herritarrei.

● **Korukoak tabernaz taberna** ibiliko dira kantari Olentzeroren etorreraren ondoren.

● **Pailazoak Elorripen.** Gabon ingurua umeen festa dela eta, Elorri Kultur Elkartek antolatuta, abenduaren 28an, arratsaldeko 5,30etan, Kalaxan, Joxpa eta Prontxi pailazoen ikuskizuna Elorripen.

● **Aizkorrra mendi irteera.** Urteroko moduan, urte zahar egunez mendi elkarteak antolatuta, goizeko 8,30etan plazan elkartuta, Aizkorrra iguera.

● **Urte Zaharrari agurra.** Arratsaldeko 5etan buruhandi eta erraldoiak. 6etatik aurrera Elorri antolatuta, herriko taloileek egindako taloak eta ardoa.

● **Kriseilu herriko txistularien alboradak.** Eguberri eta Urte Berri egunetan etxeko alboradak eskainiko dituzte.

● **Errege magoen kabalgata.** Urtarrilaren 5ean, Kabalgata taldeak antolaturik udalaren laguntzaz. Hiru erregeak zaldiz, 18:00etan ailegatu dira Mutiloa aldetik. Herriko kaleak pasata, Txanbolinpen Erodesi bisita egin eta Portikopean jarriko den estalpean egindako eskaintzekin amaituko da. Ospitaleko ere bisita egin eta opariak eramango dizkiete.

Joseba Telleria



Futboleko II. Makro festa abenduaren 22an

Gabon giroaz baliatuz eta futbolerako diru pixka bat atera nahirik, ondorengo egitaraua gauzatu dute:

18:30ean: Herri poteoa trikitilariekin.

18:45ean: Buruhandi eta erraldoiak.

19:45ean: Gaztaina jana eta ardo kupela plazan.

20:00etan: Herriko koruaren emanaldia eta txalaparta plazan.

21:00etan: Herri afaria Baratze frontoian. Txartelak tabernetan salgai.

24:00etan: 'Zibidi' taldearen kontzertua eguna argitu arte.

Argazkian, II. Makro festaren antolatzaileetako batzuk.

Eguberrietako erronken atzetik

Gain-gainean ditugun Eguberrietan, urtero bezala, hamaika izango dira herrian izango ditugun ikuskizun, antzerki eta bestelako ekitaldiak. Goazen bada guztiei ere gainbegiratu txiki bat ematera.

Kultura batzordeak antolatutako saioak

● **Abenduaren 20an:** Patxi Hernando Otxe ipuin kontalariaren ipuin musikalak egongo dira entzungai bihar arratsaldeko 6,15etan Kultur etxean.

● **Abenduaren 21ean:** Beti-Gazte elkartearen Santo Tomas eguneko ospakizunak egingo dituzte txistor jana eta guzti arratsaldeko 6etan.

bertsoa eta trikitia uztartzen dituen erronka hau, eta urte eta gehiago Euskal Herriko hainbat txoko alaitzen eman ondoren, gure herrian emango diote amaiera ikuskizunari. Horretarako, orain arte saioan parte hartu duten guztiak igoko dira oholtza gainera. Bertsolariak: Iñaki Murua, Jokin Sorozabal, Aitor Mendiluze, Anjel Mari Peña-garikano, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso. Trikitilariak: Ansorregi eta Larrañaga, Izer eta Alabier, eta Narbaiza panderojolea. Dantzariak: Jon Maia, Kimetz Larrañaga, Oier Imaz, Iban Agote, Aitor Sorazu, Felipe Eizagirre eta Gaizka Ibeas. Sarrerak 500 pezeta balio du.



Amnistiaren aldeko Olentzero

Zaldibiako Amnistiaren Aldeko Komiteak deituta, aurten ere, hilaren 24an herri guztia elkartasun doinuaz betetzeko aukera izango da goizean goizetik Zubi-buru elkartetik abiatuta. Hala ere, aurretik ezarriak gozaten joateko eta berrienak kantak ikasten joan daitezen hiru entsegu izan dira Kultur etxean: Gaur, hilak 19, iluntzeko 8,30etan, hilaren 21ean 19:30ean eta 23an arratsaldeko 4,30etan.

Honez gain, urte berriari harrera eginez kalejira bat antolatu du goizeko 1.00rako. Herrian falta direnak gogoratuz, Hator-Hator abestia kalean zehar abesteko deia luzatzen du Gestorak. Iaz Kultur Etxean izandako baraualdiaren haritik, aurtengo Eguberrietarako antzeko ekimen bat prestatzen ari dira zenbait herritar. Abenduaren 26ko arratsaldean hasi eta hilaren 30 arte luzatuko den gose greba egingo du herritar multzo batek, tartean, gose greba osoan parte hartu ezin duenarentzat, baraualdi txandakatua egiteko aukera izango delarik.

Herri Ekimenaren deiak

“Euskal Presoak Euskal Herrira” herri ekimenak beste hainbat ekintza antolatu ditu Eguberri hauetarako. Hilaren 22-23an gutun bidalketa egingo da espetxean dauden Oskarbi Jauregi eta Juan Mari Olano herritarrei elkartasun mezuak helarazteko. Abenduaren 28an, berriz, Etxerat! elkarteak, euskal preso senideen elkarteak, deitu duen kontzentrazioarekin bat egiten du herri ekimenak, eta urte zahar egunerako kalejira bat antolatu du euskal preso eskubideen alde. Honez gain, “Euskal Presoak Euskal Herrira” oihala balkoietan zintzilikatze deia egiten du.

● **Abenduaren 28an:** Dardar taldeak aurkeztutako “Alizia bitxikerien lurraldean” antzerki saioa izango da arratsaldeko 14,30etan antzokian.

● **Abenduaren 28an:** Ordi-ziako Urrup antzerki taldeak Federico Garcia Lorcaen “La Casa de Bernarda Alba” saio eskainiko du gaueko 10,15etan.

● **Urtarrilaren 4an:** Beasaingo Errail antzerki taldeak Jordi Teixidoren “Txirularen erretaula” saioa eskainiko du gaueko 10,15etan.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroj Jauregi*



● **Abenduaren 22an:** “Upeletan erronka” dantza ikuskizunaren azken saioa egongo da ikusgai frontoian gaueko 10etan. Gogoratuko duzuen moduan, iaz Santa Fetan ikusi ahal izan genuen dantza,

● **Abenduaren 26tik urtarrilaren 3ra:** herriko hurrei zuzenduriko plastika ikastaroa izango da Kultur etxean, goizeko 11etatik 12,30era.

Eguberrietako egitaraua bete-beterik

Eguberriak datozela eta, egitarau berezia antolatu du Lazkaoko udalak egun haue-
tarako. Aurtengoan gainera, beste urtetan baino ekintza gehiago antolatu ditu udalak.

Hitzaldiak

Eguberri hauetan, ordea, kulturak toki zabala izango du eta liburu eta disko azokaz gain, beste kultur ekitaldi batzuez gozatzeko aukerarik ez da faltako. Besteek beste, urteko egun berezi hauetan hainbat hitzaldi ere eskainiko dira Kultur Etxean. **Abenduaren 20an** egun oso entzunda den gai baten beste ikuspuntu berri bat eskainiko du "Mundukide" gobernuz kanpoko erakundeko kide batek. Hizlariak gobernuz kanpoko erakunde batek globalizazioa nola ikusten duen agertuko du.



Hitzaldien zikloa berriz, **abenduaren 28an** amaituko

dute Leonardo Esnaola, Juan Cruz Juaristi eta Luis Felipe Soto adituek "Rwanda, 40 urteko esperientzia" izeneko mahainguruan.

Erakusketak

Eguberri hauetan, gai ezberdinei buruzko erakusketak ere izango ditugu bisitatze-ko. Abenduaren 21etik 30era bitartean, Hirugarren munduko, eta bereziki Ekuadorreko Amazonian egindako eskulanen erakusketa izango da Lazkaon. **"Yana curi paradisuzauritua"** izeneko erakusketa honekin hirugarren munduan petrolioak eragiten duen txikizioa edo heriotzako bezalako gaiak zein gertutik bizitzen dituzten erakutsi nahi da. Erakusketa honekin bertako hainbat eskulan ikustearekin batera, erosteko aukera ere izango dugu.

Irrati zaharren erakusketa ere izango dugu eguberri hauetan, Antsoategi elkarteak antolaturik. Urtarrilaren 4tik 13ra bitartean, 1924 eta 1960 urte bitarteko 77 irrati bitxi izango dira ikusgai kultur etxeko erakusketa aretoan.

Eta urtarrilaren 13an, bertan, Lazkaon hain ezaguna den Astotxo egunarekin batera, **Gipuzkoako asto lehiaketa** ospatuko da herriko plazan, Antsoategi elkarteak antolaturik. Aurtengoa lehiaketa hau ospatzen deneko 3. urtea da, eta bertan asto ederrak

Dionisio Amundarainentzat

Anton Abbadia saria

Dionisio Amundaraini Antonio Abbadia saria emango zaio euskararen alde egindako lanarengatik. Abenduaren 20an, jasoko du Dionisio Amundarain lazkaotarrak Antoine D'Abadie saria. Iparraldeko euskaltzale baten izena daraman saria Donostiako Aldundian emango zaio Dionisio Amundaraini euskararen alde egin duen lana errekonozitu asmoz.

ikusi eta ederrena zein den erabakitze lehiaketa izango da.

Migel parrokiako meza nagusian.

Kontzertuak

Eliz musika gustuko dutenek ere badute aurtengoan bere aukera. Abenduaren 23an **Easo Kapera** gregoriantaren eskutik gregorianoz abestutako meza eta kontzertua izango dira entzungai Benediktarren elizan, goizeko hamaiketan.

Urtarrilaren 6an, errege egunean, berriz, **Lazkaoko abesbatzak** Eguberri kontzertua eskainiko du San Migel parrokian eguerdiko meza nagusiaren ondoren. Astotxo egunean ere Lazkaoko abesbatzak parte hartuko du San

Haurren txokoa

Haurrak aspertu ez daitezen, badago aurtengoan ere beraietzako txoko bat. Liburu eta disko azokaren barnean, **haur literaturari txoko** bat egin zaio Kultur Etxean. Honez gain, abenduaren 26, 27 eta 28 eta urtarrilaren 2, 3, eta 4an haurrentzako jolasak antolatu dituzte San Benito ikastola eta Lazkaoko udalak. Egunduz haur hauek goizeko 11etatik 13etara hainbat jolas eta ekintza antolatuko dira haurrek parte har dezaten.

Oihana Sarasola



Jaiotza, Errege kabalgata, Astotxo eguna

Urtero egin ohi den bezala, aurtengoan herriko hainbat gaztek jaiotza biziduna, errege kabalgata eta Astotxo eguneko eszenifikazioa egingo dute Lazkaoko kaleetan. Azken honetan, Astotxo egunean, herriko 150 gazte baino gehiago 1652. Urteraino atzeratu eta Egiptoko ihesa nola gertatu zen azalduko dute antzerki baten bidez.

Garai bateko Gabonen oroitzapenak

Oñatibiko Nikolas Alustizak gaztetako Eguberriak hizketagai

Betidanik ezagutu izan du Oñatibiko Nikolasek gaboneskea Gabirian, baita sentimendu eta ilusio bereziz bizi ere, “ordun Gabonak sagratuk zien, kanpon batenbat bazan danak etxea etortzen zien, bakallaoa artuta. Etxera biltzeko giro ori beti izan due Gabonak”. Kantu-eskeko ohitura ere betikoa izan da Nikolasentzat. Gogoan du mutikotan, 8-9 urterekin, nola joaten zen auzoko etxeetara bera bakarrik, edo geroxeago hiru-lau lagunekin “Hogeita laugarrena degu abenduan” kantatuz.

Gerra ondoren ia koadrila handiagoa osatu zuten, soinu-jole Antonio Artzelus zena ibili zutela. Eskea oinez egiten zuten, noski, ilunpetan linterna-argiak lagun; “eguerdin ordubitan Kamiñokutzan irten, Uarketatik gora Eztanda, andik Aztiria, Etxetxo, Etxeaundi ta danak ein, eta andik Bekoetxea jaisten ginen. Ortik Anbu, Katarain ein, gero Euzkitatik goitik bera Zaneztoanaiño, ortik gora Gabirizarra, Olkiatik Gabirira, andik aurrea jun da Madariaga goena ta barrena, Muttei atzekalden, Noatxeberri, bueltan Mandiolatik bera Oñatibi ta ok ein eta amabitako komentura gauerdiko mezeta. Ta ez oain bezelako kamiñotan e!”, kontatu digu, orduko ilusio berberarekin. Eurak ziren eskean irteten zuten koadrila bakarra, “besten batzuk ibiliko zien lau-bost bat, baño kuadrilla aundie geu bakarrik. Amalau bat eo ola izaten giñen, ta soiñukin An-



Legazpiko Patrizionetik ekarri zuten nazimentuarentzat bateria, Kamiño-zarretik barrena, makila batetik txintxilika Izar Goeneko Joxe Antonio Enatarriagak eta Nikolasek bien artean.

tonio zana. Arrek prepau giñutzen kantukin, Goazen-goazen kantatzen gendun”.

Etxe aurrera eramaten zuten jaiotza hura, nazimentua, ez dauka ahaztuta, “aurretik Juan Joxe Arrondok eta eballi zuen nazimentue, 1933 ingurun. Egurrezko kaja aundi bat zan barrun bere irudik zittula, lau eskulekukin bi launen artan eamateko. Argie eitteko baterie izaten zon alden, bonbilla txikintzako, eta atzen izar bat zeuken, manilla batekin moittuz

“brist” eitten zola”. Gaur baino bizipoz handiagoarekin bizitzen omen zituzten ordukoek egun seinalatu hauek, egunerokotasun gordin hein batean gaintzeko modua ere bazen eta. “Zaararak etzien emendik iñoa irtetzen, etzeon telebixioik ta radioik, ta alako baten etxe aurren olako nobedadea ikustea izugarrie zan aintzat. Garai artan nazimentue bezelako gauza xumek nobedade aundie zien, baserri aurretan gauen junda olako argik ikustek ilusio aundie

ematen zion jendei”.

Kantatu ondoren etxetiarrek zegokien bezala saritzen zituztela ere ondo gogoan dauka Nikolasek. “Gutxi eo geio dirue izaten zan beti, jakik ez. Ni ibili nitzien azkeneko urten, berrogeita bie zan, soldaduzka jun aurretik, sekulako diruk bittu giñutzen. Ordun Txokoko Pilarrek eta zeukien Ostatue artuta, azkeneko urtea, eta errege eunen eo ola kriston bazkarie ipiñi ziu Txokon, esken bittutako dirukin. Gabirin beti dirue ondo eman izan da”.

Etxeko famili artean otordua ere normalean baino oparoagoak izaten zituzten, ahal zen neurrian, betiere. “Gue etxen Gabonetako ardie iltzeko oiturea izaten zan, arekin mondejuk ein, zopak’e bai, ta ura jaten gendun. Bixiguere bai garai artan, udan iñok etzion kasoik eitten, baño gabonetan bai. Olio azak zien bestea, ta konpotea. Turroia bazan, beti ezautu det nik turroia Gabon gauen. Ainbeste klase ez, baño turroi ona, Alikantekoa”. Urteak joan, urteak etorri, betiko bizipoz eta sentimenduekin hartuko ditu Nikolasek aurtengo Gabonak ere, beste askok bezala. Ondoko pasa ditzazuela denok, beraz.

Aimar Maiz

Gabon jaiak gainean

Hilaren hogeita lau egun seinalatua dute herriko koadrila mordo batek, goiz sentian irten eta gauera arte etxek etxe kantari ibiliko baitira. Elkarreetatik, eskolatik eta beste koadrila batzuetatik aterako dira taldeak.

Urte Zahar arratsaldean berriz, azken urteetako joerari eutsiz, kirol proba bitxi eta ikusgarri bat prestatu dute herriko zenbait gaztek. Ondorengo jaigiroarekin urtea agurtzeko modu polita izango da, beraz, hilaren hogeita hamaikan kaskoan.

Ormaiztegi

Giro ona herriko jaietan

Giro onez ospatu dira aurtengo Ander deunaren jaien barneko festa ekintzak. Dena den aurtengo herriko festa ospakizunen barneko bi asteburuetan izandako bi gertakizunek nolabait festetan eragina izan dutela esan dezakegu, batetik jaien hasieran Beasaingo gertakizun tamalgarria izan zen eta bestetik festa amaieran Ekaitz tabernan gertaturikoa. Aipatu tabernan gertaturikoa susto batean geratu zela esan dezakegu askoz ere larriagoa izan baitzitekeen, denan den gertakizun horretan zaurituak izan zirenekin bat egin nahi dugu eta ahalik eta azkarren senda daitetzela opa diegu.

Lehenengo asteburuko ospakizunak

Aurtengo mendi asteari amaiera Juanito Oiatzabalen emanaldiak eta igandeko ospakizunek eman zioten.

Lehenengo asteburuko pailazo emanaldian, txokolatadan eta antzerkian partaide-tza handia izan zen eta haurrek ikuskizunez gozatzeko aukera izan zuten.


Igande goizez VIII. Ariesau erakusketa ospatu zen herriko enparantzan. Gipuzkoako Gabiltza artisau-gileen elkarte-ko partaideak hurbildu ziren gure herrira, baita beste hainbat lekuetatik hurbildu ziren artisau-gileak ere. Guztira 50 artisau-gile inguruk parte hartu zuen, zortzi urte hauetan izandako partaidetza handienarekin. Hurbildu zen ikuslego kopurua ere inoiz baino handiagoa izan zen, eguraldiaren laguntzaz. Lazkaoko talogileek eginiko taloak ere dastatzeko aukera izan zelarik. Aurtengo erakuske-

tan parte hartu zuten artisau-gileak jarraikoak izan ziren.

Bigarren asteburuko ospakizunak

Igande arratsaldeez antzerkiaren ondoren Goruntz dantza taldekoek eskainiriko saiora ere ikuslego ugari hurbildu zen eta dantzarien saio politaz gozatzeko aukera izan genuen.

Ander Deunaren bezperan eman zitzaizen suziri eta buruhandien giroaz alaiturik aurtengo jaiei hasera ofiziala. Zaindariaren egun handian hau da ostiralean erabat giro ona izan zen, besteak beste goiz eresia, Legazpiko abesbatza, Mieltxo saralegiren ikuskizuna, bertsolariak, haurren ekitaldiak eta gazteen rock kontzertuak izan zirelarik. Larunbat goizez haurren danborradak herriko kaleak alaitu zituen, eguerditik aurrera berriz moztaroen taldeen ikuskizunak giroa benetan alaitu zuten. Asko izan ziren moztarotu ziren taldeak eta beraiek prestaturiko ikuskizunek desfilean benetan giro ona jarri zuten bertara hurbilduriko ikuslegoek gozatu zutelarik. Guztira desfilean zortzi taldeek parte hartu zuten, denek sariak eraman zituztelarik. Aurtengo desfilean garaile Grease taldea izan zen,



bigarren sorginak gelditu ziren eta hirugarren milki behiak. Elvis izan zen, beraiek sari berezia eraman zutelarik.

Lehiaketetako irabazleak

Igandean Ormaiztegiko odolkia izan genuen protagonista eta bere inguruan giro ezin hobeaz ospaturiko ekintza guztiek herriko enparantzan festen amaiera bikaina jarri zuten. Gainera giroa benetan areagotu zuena lehiaketa garrantzitsuenetariko garaileak herritarrak izatea izan zen, hain zuzen XV. Ormaiztegiko odolki lehiaketako irabazlea Jesus Mari Deba izan zen. Guztira hamasei harakinek parte hartu zuten aurtengo odolki lehiaketan.

Baina aurtengoan Deba sendia protagonista izan dela esan dezakegu aitzitik Ormaiztegiko odolkia osagaitzat duten plateren II. Sukaldaritza lehiaketako irabazlea Aintzane Deba izan baita. Ja-

so bezate Deba aita-alabak le-
rro hauetatik gure zorionik beroena, odolkgintzan orain arte bezala goi mailari eutsi diezaietela opa diegularik.

Bestetik V. Odolki osagaien azoka eta lehiaketan ere barazki bikaina ikusteko aukera izan genuen. Bertan partaide izan genituen Kasilda Iurrita eta Rafaela Peñagari-kano herritarrak, baita Ezkio-Itsasotik etorritako Maria Etxezarreta eta Urkulei baserriko Mari Karmen Barrene-txearen txerriak ere. Txerrietan aipaturikoek eraman zituzten lehen eta bigarren sariak, postu onenaren saria Rafaelarentzat izan zen bigarre-na berriz Maria Etxezarretarentzat. Porru eta tipolarik onenaren sariak baita bigarren sariak ere Casilda Iurrita eta Maria Etxezarretarentzat izan ziren. Perejil eta oregano onenen saria berriz Rafaela Peñagari-kano lortu zuen. Jaso bezate baserriar hauek ere gure zorionik beroena lehiaketan parte hartzeko, produktu bikainak ekoiztu eta ekartzen eginiko ahalegin bereziarengatik.

Antolakuntza lanetan Ormaiztegiko udala, Baso-Txulo eta Barduliarrak elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nezakaritza saila aritu ziren; Sagaspe okindegia, Elozegi ardote-gia eta Labe-ko-a jatetxearen laguntzaz.

Aitziber Murua

Eguberri jai zoriontsuak opatuz

Eguberri jaiak ospatzeko gure herrian ere hainbat festa ospakizun antolatuko dira. Oraindik egitaraua zehatz-mehatz amaitua aurkitzen ez denez aurrarapen gisa urtero ohi bezala gabon kanten eskaintza eta beste hainbat ospakizun izango direla aurrera dezakegu. Herritarrei gonbidapena luzatzen dizuegu gabon ospakizunetan parte har dezazuen, elkarri eguberri jai zoriontsuak opatzeko asmoz. Urtean zehar herriko berriak ahalik eta ongien ematen saiatzen garen aldizkari honetatik, eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu eta 2002. urte oparoa izan dezazuela.

Jabier Arrieta eskulturgile eta tailagilea:


"Garrantzitsuena gustuko dituzun lanak egin eta hauei irteera ematea da"

Jabier Arrieta Beasainen bizi den zegamarra eskulturgilea eta tailagilea da. Egin dituen lanez gain hainbat herritan taila ikastaroak ematen dituelako da ezagun gure artean.

Noiztik eskulturak egiten?

Gaztetan 13 urterekin edo hasi nintzen tailatzen. Lehenengo egurrekin eta gutxikagutxika eskua hartu nionean harrira pasatu nintzen. Familian aurretik ez nuen inor honetan aritzen zenik. Nire kontura hasi nintzen, bati eta besteari begira ikasiaz. Harriarekin ere berdin egin nuen. Marmoleri batera joan nintzen eta han hasi nintzen harria lantzen.

Gehiena nire kasa ikasi dut, baina marmoleritan eta hainbat lekutan lan egitean konturatzen zara jende on as-



"Gure langintza oso polita da", dio Jabierrek.

ko dagoela, honetan edo hartan asko dakiena. Horretaz geroz eta gehiago konturatzen zara. Gure artean harremanak ditugu eta beti joaten gara ikasten.

Harria eta egurra ezberdinak izango dira ba.

Lanerako era berdina da. Ezberdintasuna da harria oso zikina dela eta egurra, berriz, oso garbia. Teknika bera era-

biltzen da, lanerako erramienta ezberdinak erabiltzen direla ere bada ezberdintasuna.

Orain arte zer lan egin duzu? Enkarguzko lanak izaten al dira?

Bai, gehiena enkarguz lan egiten dut. Marmoleritan, etxe partikularretan eta horrela lan egiten dut. Dena den geroz eta lan gutxiago dago, makinek kentzen digute lana.

Herrietan ikastaroak ematen ditut. Bat eta beste ondo moldatzen naiz, ez naiz kexatzen. Gainera jende asko ezagutzen da eta batean ez bada bestean sortzen da lana.

Geroz eta taila ikastaro gehiago antolatzen dira, modan al dago?

Hobby edo zaletasun bezala egiteko ikaragarri polita da, baina, lanbide bihurtzeko oso ezberdina da. Zuk lantegi batean 8 ordu lan egiten dituzu eta adibidez arratsaldeko 4etarako libre zaude, ordubete atseden hartu eta gero ordu pare bat aritzeko oso polita da. Denok horrela hasi gara, zaletasun bezala hasi eta pixkanaka-pixkanaka dena utzi eta honetara bakarrik aritzera iritsi gara.

Ordu asko eta lekua eskatzen du. Harria lantzeko leku asko eta egokituak behar dira haize librearekin ere bai.

Lan txikiak egiteko materiala dohainik ere lor daiteke,



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Zrionak eta Urte Berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiratzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Zumarralde z/g
Faxa: 943 88 82 67 ORMAIZTEGI

J. ARANBURU
OINETAKOAK

*Gabon zoriontsuak opa
dizkizuegu guztioi!*

Kale Nagusia, 38
☎ 943 88 01 27 BEASAIN



AUTO ESKOLA

Ondo pasa gabonak!

Laister helbide berria!

Elosegi 19 LAZKAO

☎ 943 88 72 99



Otzaurtetik San Adriana bidean

Otzaurte eta Beunde aldean seinalizazio gisan 4 harri jarri berri ditu. Aurrerago San Adrian baino aurreraxeago eta Urbian beste bana jartzeko asmoa du. Baina, hauek egin ondoren eramaterik ez dagoenez bertan egin beharko ditu. Hauek Partzoneriak egindako enkargua izan dira. Seinalizazio gisan dira, mendiko mapak eta animali eta abarrekin apainduta. Aluminiozko plakak jartzea falta zaie.

12.000 kiloko harriak dira eta hasieran oso xumeak izan behar ziren, erliebezko planoak bakarrik izan behar zituzten. Baina horrelako harritzarretan hain gutxi egitea pena zen eta Jabier bertakoa denez eta lekua gustukoa duenez, gainontzeko irudi guztiak egin dizkie, diruari begiratu gabe. Joan zen neguan, Otzaurte gainean egin zuen lana, andamioekin eta toldoekin babesa eginda.

marmoleritan eta botatzeko izaten dituzten harri puskak aprobeztatuaz.

Ze motatako enkarguak izaten dituzu? Ze lan mota egiten duzu?

Batez ere etxe partikularretan, egurra eta harria lantzen.

Igual etxe batean 8 hilabete pasatzen ditut.

Aparte eskulturak ere egiten ditut. Orain Loinazko San

Martinen zurezko irudia egin behar dut Igartzako ermittan jartzeko.

Garrantzitsuena, bide bat, erreten bat egitea da. Gustuko dituzun lanak egitea eta hauei irteera ematea. Bestela, marmolerietan eta hainbat lan aurkituko duzu baina horrek hutsik uzten zaitu. Zaila da zure gustuko lanen enkarguak izatea, baina gutxieneko urrats batzuk eman beharra dago. Garrantzitsuena langilela izatea da, berez lanerako grina izatea eta jarraipenez egunero ordu asko sartzea. Utzikerian eroriz gero jai dago, oso buru gogorra izan behar zara.

Marmolerietan hilarriez gain parkeetarako iturriak eta antzekoak egiten dira. Baina han ezin duzu nahi duzuna egin, agindutakoa baizik.

Ametsik?

Beasainen egiten ari diren parke berri horietako batean eskultura handiren bat jartzea gustatuko litzaidake. Eskulturantzat Udaletxe eta Diputazio mailan dago lana, baina hor jende asko dago aurretik eta politika ere sartzen da. Oso zaila da, eta beste bide batzuk irekitzen joan beharra dago, ikastaroak edo dena delakoak.

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu giztiori!

Garbitasunak

OXEPI

943 88 96 67 ZALDIBIA

Kubako bidaietan berezitasuna

Koba

Bilbo-Habana-Bilbo

Urtarrilaren 1etik 21era

561 euro

Eloegi, 17 LAZKAO

Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971

e-posta: algoz@wanadoo.es

JOSUNE & KLAUDE

ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 943 16 22 56 ORDIZIA

mujika

OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 11

943 88 27 16 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Goierriko Akademia integrala

Interneten: Kontsultatu irakasleari Beharrezko informazioa aurkitu

ikastekakademia@latinmail.com

http://usuarios.tripod.es/ikastek

Joan Iturralde, 5 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen Hezkuntza
- * DBH, DBHO, Moduloko
- * Zikloak

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Ohiturak, metodoak
- * Atentzioa
- * Emozioen kontrola

UNIBERTSITATE MAILA

- * Enpresaritza
- * Kontabilitatea, kalkulua
- * Fakturazioa, estatistika
- * Matematika (finantziera...)

ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ

Abenduak 20, 'Amores perros', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

Abenduak 28, 'Labur gaua'. Euskal Herrian egindako laburmetraien emanaldia 21:00etan eta 23:00etan, Usurbe Antzokian.

Urtarrilak 10, 'El círculo', 21:00etan, Usurbe Antzokian. 15. zikloaren hasiera.

LEGORRĒTA

Abenduak 20, 'Billy Elliot', Herri Zinema, 20:30ean.

Abenduak 27, 'Hannibal', Herri Zinema, 20:30ean.



'Amores perros'

Alejandro González Iñárritu
(Mexiko, 2000)

Mexiko hirian, zorigaiztoko istripu batean, hiru bizitzak, hiru munduk, hiru gizarte mailak talka egin dute eta gertaera honek giza izaeraren alderdirik petralena agerian utziko du. Octaviok bere anaiaren emaztearekin ihes egin nahi du; Danielek, 42 urteko gizonak, emaztea eta alabak utziko ditu, modelo eder bezain tuntun batekin bizitzeko. Chivo goitizeneko gerrilari komunista ohia, berriaz, munduaz nazkatuta, soldatapeko hiltzaile bihurtuko da. Hirurek duten antzekotasun bakarra txakurrenganako hurbiltasuna izango da, agian.

musika

BEASAIN:

Abenduak 21, Gozategi taldea, Usurbe antzokian, 22:15ean. Sarrera 500 pezetan.

Abenduak 23, J.S. Bachen Oratorioa, Loinatz abesbatza eta Talde Barrokoarekin, Andra Mari Zeruratuaren elizan, 20:00etan.

ORDIZIA:

Abenduak 21, Erramun Martikorenak 'Kantuz sortu nahiz eta' disko berriaren aurkezpena egingo du, Pascal Gaigne (gitarra) eta Karlos Gimenez (pianoa) laguntzaz, Herri Antzokian, 22:15ean. Sarrerak Barrenan salgai.

Abenduak 25, Eguberri kontzertua, Santa Ana abesbatzaren eskutik, elizan, 20:00etan.

Abenduak 25, Eguberri kontzertua, Beti Argi bandaren eskutik, Plaza Nagusian, 13:00etan.

Abenduak 31, Ohikoa den Kattalin doinua joz Beti Argi banda eta Laguntasuna Errondaila.

dantzak

BEASAIN:

Abenduak 22, Ostadar dantza taldearen eskutik, haurrentzako eta gazteentzako gaboretako dantza jaialdia, Antzizar kiroldegian, 16:00etan.

ORDIZIA:

Abenduak 27, Jakintza dantza taldeak antolatuta 'Haurren Gabonetako I. Dantza ikuskizuna', Herri Antzokian, 20:00etan.

pailazoak

ORDIZIA:

Abenduak 30, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun berria, 'Aupa Kintxo', Majori kiroldegian. Sarrerak Barrenan salgai.


Bai Pub Bai
Urte berri on!
BEASAIN


Basakana
Glicidala eta Pinxo goxak
Iturriotz, 11 beasain


ASTI
Gabeon zoriotsuak!
Zaldizurreta kalea
943 88 45 06
BEASAIN

NAGASAKI
Taberna
Urte Berri on!
943 88 15 67
J. M. Iturrioz BEASAIN


Jar
Urte Berri on!
EDARITEGIA KAFETEGIA
Nafarroa Etorbidea, 27 943 88 86 81 BEASAIN

antzerkia

ZALDIBIA:

Abenduak 28, Ordiziako Urrup antzerki taldearen 'La Casa de Bernarda Alba', 22:15ean, antzokian.

Urtarrila 4, Beasaingo Errail antzerki taldearen 'Txirularen erretaula', 22:15ean, antzokian.

txotxongiloak

ORDIZIA:

Abenduak 26, Aitonamona eta bere biloben egunaren barruan Jubilatuen egoitzan, 'Eman eta gero' lana, 18:00etan.

Urtarrilak 5, Bihar txotxongilo taldearen 'Klip, Klap rezikla', 11:00etan, Plaza Nagusian.

erakusketak

BEASAIN:

Urtarrilaren amaiera arte, Beasaingo argazki zaharren erakusketa Igartza jauregian. Ordutegia: larunbat eta igandeetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

ORDIZIA:

Abenduaren 21era arte, Jose-txo Beristainen 'Ordiziako apunteak', Barrena.

Urtarrilaren 6ra arte, AEK-k antolatutako 'Gabonetako postalen lehiaketa' erakusketak, Barrenan.

'Upeletan erronka'-ren azken saioa Zaldibian, abenduaren 22an

Upeletan erronka' dantza ikuskizunaren azken saioa egongo da ikusgai Zaldibian, abenduaren 22an, pilotalekuan, gaueko 10etan. Iaz Santa Fetan ikusi ahal izan genuen dantza, bertsoa eta trikitia uztartzen dituen erronka hau, eta urte eta gehiago Euskal Herriko hainbat txoko alaitzen eman ondoren, gure herrian emango diote amaiera ikuskizunari.

Horretarako, orain arte saioan parte hartu duten guztiak igoko dira oholtza gainera. Bertsolariak: Iñaki Murua, Jokin Sorozabal, Aitor Mendiluze, Anjel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso. Trikitilariak: Ansorregi eta Larrañaga, Izer eta Alabier, eta Narbaiza panderojolea. Dantzariak: Jon Maia, Kimetz Larrañaga, Oier Imaz, Iban Agote, Aitor Sorazu, Felipe Eizagirre eta Gaizka Ibeas. Sarrerak 500 pezeta balio du.

Ordizian Gabonetan ipuin kontari

- Abenduak 22: Pello Añorga, Barrenan, 11:00etan.
- Abenduak 26: Arrate Leunda, Barrenan, 11:00etan.
- Abenduak 27: Arrate Leunda, Barrenan, 11:00etan.
- Abenduak 28: Arrate Leunda, Barrenan, 11:00etan.
- Abenduak 29: ipuin kontalaria oraindik zehaztu gabe dago Barrenan, 11:00etan.
- Abenduak 28: Arrate Leunda, Barrenan, 11:00etan.

Haur parkea Ordizian

Urtarrilaren 2tik 4ra bitartean, haur parkea izango da Plaza Nagusian. Goizetan, 11etatik 1,30etara eta arratsaldetan, 4etatik 8etara.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Abenduak 22-23: Laurnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Abenduak 29-30: Urbizu
(Kale Nagusia 8, - Beasain). 943 880232.



Oriamendi, 19 ☎ 943 16 23 84 BEASAIN

Gurutze-puntua,
puntu erdia
eta artiletan
berezitasuna

Bordatuak eta
arropa
konponketak
egiten dira

GOIERRITARRA doan


jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Tolosan etxebizitza berritua salgai. 943654679.
- ➔ Donostian, Egian, etxea salgai. 2 logela. 659729135 (arratsaldeko 5etatik 9etara deitu)

konpartituak

- ➔ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen du-gu. Mutil ez erretzaileak. 914090390.

Garajeak

errentan

- ➔ Ormaiztegin garaje edo biltegia (itxia) alokairuan hartuko genuke. 943889900.

salgai

- ➔ Beasainen garajea salgai, herri erdian. 943027947. Iluntzetan deitu.

Bestelakoak

salgai

- ➔ Su egur iharra salgai. 943723504.0
- ➔ 'Jakintza bideak' entziklopedia salgai. 5 liburu. Euskaraz. Erabli gabeak. 943882467 - 626610384.
- ➔ Egongelako altzariak salgai: 1,35ko sofa-oheta eta beste bi sofa, eta mahaia. 943885320.
- ➔ Etzandako solariuma, sekadora besoekin eta tintearentzako baporea salgai. Merke. 605772624.
- ➔ Pentium 3 ordenadorea salgai. 1.000 Mh. 40 Gb. Windows Millennium eta Office 2000. 80.000 pezetan. 943187706.
- ➔ Andregaiaren soinekoa salgai. 1999/2001 denboraldikoa. 42-44 neurria. Oso ondo dago. 943163013.
- ➔ Su egurra salgai. Merke-merke. 943885292.

- ➔ Egongelako egurrezko altzaria salgai. 211 cm-ko altuera, zabalera 172 cm-koa eta sakonera 40 cm-koa. Egoera oso onean. 678846282.
- ➔ Berogailu kaldera elektrikoa salgai. Zeus-Rab9 markakoa. Ordu programatzaile eta 9.000 watio arteko potentzia hautagailuarekin. Enpresa, garaje eta antzeko lokaletarako aproposa. Bere erdi baliolan salgai. Jose Ramon. 943652878.
- ➔ Sutarako egurra saltzen da. 2 metrora moztua eta 5 pezetan kiloa. Xabier. 943885006.
- ➔ USB NGS 300/600 skanerra salgai. 10.000 pezetan. 619856033.
- ➔ Lynx butano berogailua, ia berria, salgai, 6.000 pezetan. 943880343.
- ➔ 4. saileko Golf GTIren BDS motako llantak salgai. 2000. urtekoak. Egoera onean. 652712506.

- ➔ K6-II 450 ordenadorea salgai; 128 Mb ram, 15" monitorea; Ri-va Tnt2 32 MbAGP; Samsung regrabadora, 8 x 4 x32x; Windows 982E (edo XP edo Linux Suse 7.0). 80.000 pezeta. 619856033
- ➔ Roland BM-100 bajuentzat 100 w bozgorailua salgai (60.000 pezeta). Oso egoera onean. 943880343.
- ➔ Hifi Philips minikatea salgai, 50 + 50 W. 3 Cd, Bass Boost, Surround. 20.000 pezeta. 619856033.
- ➔ Somier mugikorra salgai, motorrarekin. Erabili gabea. 943-652893
- ➔ Baxu amplifikadorea salgai. Egoera onean. Gutxi erabilia. 943888309. (Gauetz deitu).

erosi

- ➔ Bigarren eskuko motokultorea erosiko nuke. 943883410.
- ➔ Bigarren eskuko futbolina erosiko nuke, handi xamarra. Norbait horrelako bat balu edo non dagoen baleki deitu telefono zenbaki honetara: 943886461 (Josune).
- ➔ Gramateka deitu dudan kolekziorako erosiko nituzke: mundu osoko edozein hizkuntzaren gramatikak, metodoak, hiztegiak...; bereziki greko eta latinarrenak eta hizkuntza minorizatuenak; eta azken hauen artean, batez ere, Ameriketako hizkuntza autoktonoenak. Misio-laria, bidaiaria, edozein zarela, harremanetan jartzeko hona nire telefonoa; 943213396.Jon. arnotegi@euskalnet.net.
- ➔ Euskarazko liburuak erosten ditut, 1950 aurrekoak. Gai guztietakoak interesatzen zaizkit eta ondo ordaintzen ditut. Gotzon. 649699022.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

 **mazda**
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

URBITARTE
folare
sagardotegia



Erretegi modura zabalik

Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

Ibilgailuak

salgai

- ➔ Peugeot 405 GR, 1.9, salgai. NA-X. Itxiera zentralizatua, kristal-jasogailu elektrikoa, lagundutako direkzioa... Oso egoera onean, beti garajejan egona. 200.000 pezetan. 655486022.
- ➔ Citroen ZX 16 AV salgai. 1995. urtekoa. Ondo zaindua, garajejan egona. 943084204. Gauetan deitu.
- ➔ Opel Kadet furgoneta salgai. ITV pasatu berria. 200.000 pezeta. 943187757.
- ➔ Volkswagen Polo 1.9, diesela salgai. SS-AX. 5 urte. Oso egoera onean. 650213259.
- ➔ Renault 4 F6 salgai. SS-AB. 75.000 pezetan. 943886506. Gaez deitu.
- ➔ Nissan Capitone furgoneta salgai. SS-W matrikuladuna. 150.000 pezetan. 943161476.
- ➔ Ford Scort autoa salgai. 4 urtekoa. Oso egoera onean. Extra asko (ABS frenuak, airbag, kristal-jasogailu elektrikoak, itxiera zentralizatua, leiar tinta-tuak, musika ekipoa eta aleroi bikoitza). 657799068.
- ➔ Land Rover luzea salgai. SS-U. 943800174.
- ➔ Ford Scort ibilgailu gorria salgai. 1.3 berunik gabeko gasolina, 96. urtekoa, SS-AW. 73.000 kilometro ditu. Egoera oso onean, beti garajejan gordetako. 943087261.
- ➔ Motorhispania RX Racin 50 zm3 salgai. Rodajea ondo egina. 3.000 km. Ondo zaindua eta berri-berria. Asegurua ekainera arte egina dauka. 943180360. Jokin.

Animaliak

erosi

- ➔ Pastor aleman edo euskal artzain txakurkumeak erosiko nituzke. 653011930.

salgai

- ➔ Ponny arrazako 2 zaldiko salgai. 943801811.
- ➔ 20 bat ardi salgai. Latxa arrazakoak. 943148341.

Negozioak

errentan

- ➔ Ileapaindegia alokatzen da, ezin delako atenditu. 630818941.

Harremanak

- ➔ 70 urte inguruko gizon alargun euskaldunak, 60 bat urte inguruko emakume euskaldun baten adiskidetasun jatorra nahiko luke. Bingen. 687851713.

Galdutako objektuak

- ➔ Ormaiztegiko jaietan zilarrezko eskumuturreko edo pultsera galdu nuen. Kolorezko perlatxoak ditu. 943881401 - 943161286. Edurne. Sarritu egingo da.

Lana

eskaerak

- ➔ Emakume euskalduna behar da adineko emakume bat zaintzeko. 943161239.
- ➔ Neska edo emakume bat behar da Ordizian, etxeko lanak egiteko. Kontratua eta Gizarte Segurantzaz. 943888744.
- ➔ Neska edo emakume bat behar da Ordizian 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943160292. 20:00etatik aurrera deitu.
- ➔ Goierriko folk-zelta musika talde batek bi-bolin jolea behar du. 943888002 (gaez deitu).

KiTTó

ITURRALDE, 1
BEASAIN
☎ 943 16 19 39

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON GUZTIOI!

OSINBELTZ

ZALDIZURRETA, 1
BEASAIN
☎ 943 16 19 35

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak
Giro abertzalea




Elkano Kalea

ORDIZIA



Umore onez zorionak eta Urte Berri on!
Zaldizurreta K. BEASAIN

**ETXEBE
TABERNA**



Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!

Zaldizurreta kalea
BEASAIN



Segurarrak, Senpereko lakuan

1987 urte inguruko argazkia da, Senpereko lakuan ateratakoa. Gaur egun 17-22 urte bitarte dituzten segurarrak dira.

Goian, ezkerretik eskuinera: Euri Albizu, Maialen Legorburu, Saioa Arostegi, Nora Imaz, Ekhi Albizu, Nerea Imaz, Mikel Imaz, Irati Imaz eta Irati Errezola.

Erdian: Uxue Arostegi, Mainer Legorburu eta Irati Arostegi.

Beheko ilaran: Enetz Olano, Iker Agirrezabal, Ibai Telleria eta Inge Olano.

**ORKI
OPARIAK**

Gabon zorientsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5

☎ 943 88 10 50 BEASAIN



ORLEGI EGUBERRI JAIAK
ONDO PASA

ETXEZARRETA, 3
ORDIZIA



Ume Santziak

Puerikultura

☎ 943 88 71 94

Nafarroa Etorbidea, 4 BEASAIN



TOKI ALAI taberna jatetxearen
ustiaketa esleitzeko lehiaketa
deitu du Aramako Udalak.

Informazioa jasotzeko deitu
943 88 11 70 telefonora.



**ARAMAKO
UDALA**



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak guztioi!

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN

IGARATZ ILEA PAINDEGIA

☎ 943 883 180 Nafarroa Etorbidea, 6 BEASAIN

*Estetika
Solariunak
Masajea*



**Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!**





K I M E T Z I L E A P A I N D E G I A

E S T E T I K A

S O L A R I U M A

M A S A I A K



T E L . 9 4 3 8 8 1 4 4 2
ORDUA ESKATUZ GERO . . . , EROSOAGOI

MENDEURREN ETORBIDEA, 2
20200 BEASAIN